



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko maiatzaren 5a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa arautzearen aldeko politika aktiboan parte har dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sesmako hirigunearen gainetik iragaten den goi tentsioko aireko linea lurpera dezan. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak bazter utzia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, alarguentzako laguntzak ordaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, Lagun Etxea elkarteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, merkataritzaren arloko epaitegi bat ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, Volkswagen Navarra ixteak sortuko lituzkeen ondorio sozio-ekonomikoen gaineko azterlan bat egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Galdera, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuko auzitegiko medikuen plantillari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Galdera, bidaiarien garraio publikoaren arloan dauden jarduketa aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—Galdera, Nafarroako toki entitateei, turismo partzuergoei eta zenbait elkarteri dirulaguntzak emateko deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

—Galdera, ikasketa artistikoetan ikastetxe nazional nahiz atzerrikoetan sakontzen laguntzeko deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- Galdera, zinema sorkuntzarako laguntzak emateko deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Altsasuko Aralarko Mikel Donea lanbide heziketako institutuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, 2004-2005 ikasturterako bekak emateko deialdia onesteko dekretua oraindik argitaratu gabe egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, ezgaitasunak dituzten zenbait haur bizi diren herriez beste batzuetan eskolatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Mendillorriko bigarren hezkuntzako institutuak izanen lukeen ikasle kopuruaren aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, euskara lantzeko kultur jarduerak egiteko laguntzen deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Mendillorri bigarren hezkuntzako institutua non eraikiko den jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, legeak ezarritako kasuetan haurdunaldia nahita eteteko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, merkatarien elkarateak eta enpresen arteko lankidetzak sustatzeko eta informazioaren eta komunikazioen teknologia aplikatzeko programaren laguntzetarako deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuan administrazio-kudeaketako teknikariak aldi baterako kontratatzeke izangaien zerrenda egitekoa (33. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2005eko otsailaren 28ko 16. Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– 4 zenbakiko zuzenketa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztua.

– 1, 5 eta 6 zenbakiko zuzenketak, eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztuak.

Zuzenketak 2005eko apirilaren 14ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

**Foru lege proiektua,
familia ugariei buruzko martxoaren
25eko 20/2003 Foru Legea hein
batean aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen bidez Nafarroako Foru Komunitateko familia ugariendako sostengua arautu zen. Lege horretan familia mota hori definitu zen, haren kideen betebeharrak ezarri eta familien kategoriak sailkatu ziren. Gainera, familia horiendako onura batzuk sortu ziren.

Gero, Estatuak Familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legea onetsi zuen, ekainaren 19ko 25/1971 Legea, ordu arte indarrean zegoena, ordeztu zuena. Lege horretan arau berriak daude familia ugarien kontzeptuari, baldintzei eta kategoriei buruz, baita zehapen araubideari buruz ere. Arau horiek oinarritzotzat jo ditu Estatuak Konstituzioko 149. artikuluko 1. idatz-zatiko 1., 7. eta 17. zenbakien arabera.

Horregatik, beharrezkoa da gure legea Estatu-ko legeko arau berrietara egokitzea, kontu zehatz horiei dagokienez.

Beste alde batetik, 40/2003 lege berriak familia ugarien titulua emateko eta berritzeko kontuak arautzen ditu. Autonomia erkidego guztiei dagokie titulu hori eman eta berritzea eta, beraz, baita Nafarroako Foru Komuniteari ere. Hala ere, lege horren arabera familia ugarien tituluak Estatu osoan balio duenez, hura aitortu, berritu, aldatu edo galtzeko prozedurak bakarria izan behar du. Horregatik kontu horiek ere oinarritzotzat jotzen ditu arauak, eskumen araubidea bera dela kontuan harturik.

Familia ugariei buruz indarra duen foru legean ez dira kontu horiek aipatzen. Arauaren aldatetan haien biltzea komeni da, behar diren berezitasunak zehaztearren.

Beraz, beharrezkoa da Familia ugariei buruzko Foru Legea Estatu-ko legeak indarra hartzean sortu den egoera berrira egokitzea.

Artikulu bakarra. Familia ugariei buruzko martxoaren 20ko 20/2003 Foru Legearen aldatzea.

20/2003 Foru Legeko 3., 4., 5. eta 13. artikulua aldatzen dira, honelaxe utziko direnak:

“3. artikulua. Familia ugarien kontzeptua, baldintzak eta kategoriak.

Familia ugarien kontzeptua, haien kideek hala-kotzat joak izateko eskubidea aitortzeko eta hari

eusteko bete behar dituzten baldintzak eta haiek sailkatzeko kategoriak Estatuko oinarritzko legeetan ezarri direnak dira”

“4. artikulua. Familia ugarien izaera aitortu, aldatu eta galtzea.

1. Familia ugarien izaera horretarako eman den titulu ofizial baten bidez frogatuko da. Titulu hori legezko betebeharrak betetzen direnean banatuko da, familia ugariaren aurrekoek, tutoreak, hartzaileak, zaindariak edo familia unitateko legezko gaitasuna duen beste kide batek eskaturik.

2. Familia ugarien titulua aldatu edo indargabetu beharko da familia unitateko kideen zenbatekoa edo titulua emateko baldintzak aldatzen direnean, kategoria hori galduz gero edo familia ugarien izaera galduz gero.

3. Familia ugarien izaera aitortu eta aldatzea, hura ziurtatzeko titulua ematea eta izaera galdu dela adieraztea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako organoen artetik arau bidez zehazten denari dagokio, kasu hauetan:

a) Eskatzailea Nafarroako Foru Komunitatean bizi denean.

b) Eskatzailea, familia unitatearen aurrekoetarik bat izan beharko duena, Nafarroako Foru Komunitatean bere kasa edo beste inoren kasa lanean ari denean, familia unitateko kideak Europako Batasuneko edo Europako Ekonomia Gunea osatzen duten beste estatuetako herritarrak direnean, Espainian bizi ez badira.

4. Aitortuak izateko eskabidea aurkeztu edo titulu ofiziala aldatzen denetik aurrera izanen dituzte ondorioak kasuan-kasuan familia ugariei dagozkien onurek.

5. Familia ugarien izaera aitortzen duen tituluak ondorioak sortuko ditu hura emateko baldintzak aldatzen ez direino”

“5. artikulua. Familia ugarien titularren betebeharrak.

1. Familia ugarien titulua aitorturik daukaten familia unitateak osatzen dituzten pertsonak beharturik daude, gehienez ere hiru hilabeteko epean, familian gertatzen den edozein aldaketa organo eskudunari jakinaraztera, aldaketa hori kontuan hartzekoa bada titulu horretarako eskubidea aldatu edo iraungitzeko.

2. Halaber, beharturik daude urtean urteko lehen hiru hilabeteetan familia unitateak aurreko urtean izaniko dirusarrerak adieraziko dituen aitorpena aurkeztera, Administrazioaren esku daude-

nean izan ezik, baldin eta dirusarrerak kontuan hartu badira familia ugarizat jotzeko, kategoria berezian sailkatzeko sartzeko edo menpekotasun ekonomikoaren betebeharra frogatzeko”

“13. artikulua. Zehapen araubidea.

1. Foru lege honetan xedaturikoaren arau-hauste arinak hurrengo idatz-zatian aipatzen diren portaera eta gertaerak dira, iruzurra, errua edo zabarkeria hutsa dagoenean.

Horretarako, familia unitateko edozein kide izanen da erruduna, arau-haustetzat jotzen den portaeraren bat egiten badu.

2. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

a) Honakoak dira arau-hauste arinak:

a.1 Organo eskudunari gehienez ere hiru hilabeteko epean familian gertatzen den edozein aldaketa ez jakinaraztea, titulurako eskubidea aldatu edo iraungitzeko kontuan hartzekoa bada.

a.2 Foru lege honetako 5. artikuluko 2. idatz-zatian xedatu bezala, familia unitateak aurreko urtean izaniko dirusarreraren aitorpena urtean urteko lehen hiru hilabeteetan organo eskudunari ez aurkeztea.

a.3 (KENDUTA).

b) Arau-hauste larriak:

b.1 Hiru arau-hauste arin egitea zehapen irmoa gertatu denean.

b.2 Familia ugarien izaera lortu edo mantentzeko legeak eskatzen diren betebeharrak edo baldintzetan datuak ezkutatu edo gezurrak egitea.

b.3 Familia ugarien titulu ofiziala faltsifikatzea.

b.4 Tituluak honek babesturik ez dauden beste pertsona batzuei uztea.

b.5 Familia ugarien titulu ofiziala eduki edo behar bezala ez erabiltzea edo gehiegikeriaz erabiltzea edo bestela kasuan-kasuan bidezko dena baino kategoria goragokoa duen titulua.

c) Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea, zehapen irmoa gertatuz gero, oso arau-hauste larria izanen da.

3. Izan litezkeen bestelako erantzukizunak deusetan galarazi gabe, hona hemen aurreko idatz-zatian aipatzen diren arau-hausteak egiten dituzten pertsonen ezartzen ahalko zaizkien zehapenak:

a) Arau-hauste arinengatik:

a.1 Banakako gaztigua, idatziz.

a.2 Familia ugarien tituluaren onuradunei dagoen edozein eskubide gehienez ere hilabetez bertan behera uztea.

b) Arau-hauste larriengatik.

b.1 Familia ugarien tituluaren onuradunei dagoen edozein eskubide hilabete batetik sei hilabetera bitarte bertan behera uztea.

b.2 Familia ugarien tituluaren onuradunei dagoen edozein eskubide sei hilabetetik bi urtera bitarte bertan behera uztea.

c) Arau-hauste oso larriengatik.

b.1 Familia ugarien tituluaren onuradunei dagoen edozein eskubide sei hilabetetik bi urte bitarte bertan behera uztea.

b.2. Onuradun izaera galtzea”

4. Ezarri beharreko zehapenak mailakatzeko, familia ugarien titulu erabiltzean lorturiko onuraren izaera eta zenbatekoa hartuko da kontuan”

Xedapen gehigarri bakarra. Datu pertsonalen lagapena.

Ulertuko da familia ugarien izaera eskatzeak berekin dakarrela organo kudeatzaileak familia unitatearen dirusarrerak egiaztatze behar dituen datu pertsonalak lagatzeko onarpena ematea.

Lehenbiziko xedapen iragankorra. Familia ugarien sailkapena.

Foru Lege honek indarra hartzen duenez geroztik, titulu martxoaren 25eko 20/2003 Foru

Legearen arabera aitorturik daukaten familia ugariak kategoriatan sailkatuko dira:

a) Bost seme-alaba baino gutxiago dituzten familiak kategoriatan orokorrean sartuko dira.

b) Bospasei seme-alaba dituzten familiak eta Familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legeko 4. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran eta 2. idatz-zatian aipatzen diren kasuetan lau seme-alaba dituztenak kategoriatan berezian sartuko dira.

c) Sei seme-alaba baino gehiago dituzten familiak ere kategoriatan berezian sartuko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean aipatzen diren onurei eustea.

Martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean xedaturikoarekin bat hirugarren kategoriatan lortu duten familiek kategoriatan bereziarendako aurreikusiriko onuretarako eskubideari eutsiko diote, lege honek familia ugariatzat joa izateko eskatzen dituenak baino seme-alaba gutxiago izanagatik ere.

Hirugarren xedapen iragankorra. Tituluak egokitzea.

Arau honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak oraingo tituluak arau berrietara egokituko ditu.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa arautzearen aldeko politika aktiboan parte har dezan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa arautzearen aldeko politika aktiboan parte har dezan."

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2005eko apirilaren 26an egindako bilkuran, eraba-

ki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko otsailaren 21eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sesmako hirigunearen gaintetik iragaten den goi tentsioko aireko linea lurpera dezan.

HERRILAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Sesmako hirigunearen gaintetik iragaten den goi tentsioko aireko linea lurpera dezan."

Nafarroako Parlamentuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak, 2005eko apirilaren 27an

egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko martxoaren 31ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, alarguentzako laguntzak ordaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak alarguentzako laguntzak ordaintzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindut. Galdera 2004ko uztailaren 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko abuztuaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du emakumezko alarguentzako laguntzak ordaintzeari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

1.- Zergatik kobratu dituzte Nafarroako alargunek hamabi hileko 2003. urtean, eta ez zerga arloko laguntzei buruzko 1/2004 Foru Legea onetsi ondoren kobratu beharreko hamalauak?

Galdera honen planteamendua ikusirik, ulertu behar da soilik Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67 bis artikulua lehenean aipamena egiten duela. 1/2004 Foru Legeak testu berria eman zion artikulu horri, eta, hain zuzen, horren kudeaketa Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari dagokio; izan ere, artikulu horren 2. atalean ezartzen den kenkaria ezin da zatitu. Horrenbestez, erantzuna horretara mugatuko da.

Hori esanda, azaldu behar da alargun-pentsioak jaso eta gutxienekoengatik osagarriak jasotzeko eskubidea duten subjektu pasiboek dagozkien kenkariak urtero konputatzen direla. Horri lotuta, kontuan hartu behar da alargun-pentsioengatik

kenkaria aldeztatik ordaintzea ez dela, legearen arabera, kasuan kasuko pentsioez gain ematen den paga gehigarri bat. Aldiz, aldeztatik ordaintzen den zerga-kenkaria da eta, bistakoa denez, urtero konputatzen da.

1/2004 Foru Legeak berak ezartzen duenez, zerga-kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautu behar da.

Horri lotuta, esan behar da maiatzaren 20ko 127/2003 Foru Dekretuak arautzen duela alargun-pentsioengatik kenkaria aldeztatik ordaintzeko prozedura. Foru dekretu hori otsailaren 17ko 1/2004 Foru Legearen aurrekoa den arren, aplikagarria da Foru Legearen xedatutakoaren aurka ez doan heinean. Eta aipatu foru dekretu horren 9. artikuluan ezartzen da ordainketa hileroko egingen dela.

Horrenbestez, hori da arrazoia –beharrezkoa da berriro azpimarratzea– urtero konputatzen den zerga-kenkariaren aldeztatik ordainketa hamabi hilekotan egiteko, eta ez hamalau hilekotan. Halaber, ez dago hamalau hilekotan egiteko asmorik, iruditzen baitzaigu horrek ordainketa horren ikusmolde okerrari erantzuten diola, ez baitu zerikusirik bere zerga-izaerarekin. Hala, bada, hamabi hilekotan ordaintzen den kopurua da, bistakoa denez, eginiko kenkari osoa. Horrenbestez, kenkaria hamabi hilekotan ordaintzea, hamalau hilekotan ordaindu beharrean, onuragarria da jasotzaileentzat.

2.- Hala bada, noizko eskatu behar du aldaketa hori?

Azaldu denez, zerga-kenkari osoa 12 kuotatan zatituta ordaintzen da, eta kuota horiek hileroko ordaintzen dira.

3.- Zenbat alarguni ordaindu zaie zerga laguntza 2004. urtean?

Lehenengo galderan ez bezala, honetan egileak “emakumezko alargunak” aipatzen ditu, eta ez “alargunak”, oro har. Hala ere, ulertzen dugu talde

beraz ari dela, hain zuzen, alargun-pentsioak jaso eta gutxienekoengatik osagarriak jasotzeko esku-bidea duten subjektu pasiboak.

Horri lotuta, esan behar da, abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. artikulua 1. idatz-zatian araututako modalitateari dagokionez –izan ere, horren kudeaketa Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari dagokio eta, horrenbestez, hori da galderak aipatzen duena–, alde zurretiko 14.307 ordainketa eskaera aurkeztu dira; horietatik 10.131 onartu egin dira eta, 2004ko uztailean, 8.993k jada kobratu dute.

4.- Zenbat hilabete ordaindu zaie?

Otsailaren 17ko 1/2004 Foru Legean ezartzen den araubide aldaketak eragina du 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera. Bertan aurreikusten den zerga-kenkariak alde zurretiko ordaintzeko legea onartu zenean hasi zen egiten, hain zuzen, 2004ko otsailean, eta orain arte 2003. urteari dagozkion ordaintzetak egin dira, baita 2004. urteko iragandako hila-betei dagozkienak ere.

5.- Zein izanen da ordaintzeko modua?

Azaldu den moduan, ordainketa hilero egingen da, alargun-pentsioengatik kenkariak alde zurretiko ordaintzeko prozedura arautzen duen maiatza-

ren 20ko 127/2003 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

6.- Zerga laguntzarako eskubidea izan eta deus ere kobratu ez duenik baldin badago, zenbat dira eta zergatik ez zaie ordaindu?

Behin eta berriro aipatu dugun abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 67 bis artikulua 1. idatz-zatian araututako kenkariari dagokionez, esan behar da eskaria egin eta legean ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsona guztiak ari direla jasotzen hilero aipatu ordainketa.

Abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 67 bis artikulua 2. idatz-zatian araututako kenkariari dagokionez, ez dakigu zenbat subjektu pasibok egin duten kenkaria; izan ere, kasu horretan kenkaria ez da alde zurretiko ordaintzen eta laguntza-aren balizko onuradunek zerga-kenkaria aplikatu behar dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpenean.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2004ko abuztuaren 2an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Lagun Etxea elkarteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Lagun Etxea elkarteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko uztailean 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko abuztuaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra galdera egin du Lagun Etxea elkarteari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek jarraikiz.

»1.- Gizarte arazoak zituzten adingabekoentzako programak kudeatzeko Lagun Etxea elkartearekin egindako akordioan aurreikusirik al zegoen Nafarroako Gobernuari, behin akordioa amaiturik, diru publikoek eraikitako higiezinak itzultzea?

1992ko maiatzaren 26an, entitate eta elkartei inbertsioak egiteko eta funtzionamendurako diru-laguntzak arautzen dituen apirilaren 27ko 105/1989 Foru Dekretuaren babesean, lankidetzako akordioa egin zuten orduan Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamentua zenak eta Andre Maria Doloretakoa Kaputxino hirugarrendarren kongregazioak.

Akordio horren arabera, departamentu honek dirulaguntza eman zion aipatu kongregazioari jokabide arazoak zituzten eta/edo jokabidea alda zezaketenerabe eta gazteentzako zentro bat eraikitzeko eta ekipatzeko.

Akordio horren seigarren klausulan haxe ezarzen da: "Andre Maria Doloretakoa Kaputxino hirugarrendarren kongregazioak aurreko klausulak beteko ez balitu, eraikitze lanak behin betiko etenen balitu edota eraikinaren xedea aldatuko balu hurrengo hogeita hamar urteetan, jardueraren hasieratik zenbatuta, kongregazioak arau-haustetakoaren bat gertatu eta urtebeteko epean itzuli beharko litzuzke Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzak, amortizazioari dagozkion kopuruak kenduta."

Horrenbestez, ezinezkoa da ondasunak itzultzea, baina bai Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzak, amortizazioari dagozkion kopuruak kenduta, higiezinaren xedea aldatuz gero. Izan ere, higiezinaren xedea ez da Nafarroako Gobernuarekin itundua egotea, jokabide arazoak zituzten eta/edo jokabidea alda zezaketen nerabe eta gazteentzako zentro bat izatea baizik.

2.- Hala bada, abian jarri al du Nafarroako Gobernuak horretarako ekimenen bat?

Familia zuzendari nagusiaren otsailaren 16ko 4/2004 Ebazpenaren bidez Berriztu elkarteari esleitu zitzaion inguru irekiko taldearen kudeaketarako eta nerabeen hezkuntza programarako ituna. Kontratu horrek ondorioak ditu 2004ko martxoaren 1az geroztik; horrenbestez, egun horretatik aurrera bukatutzat ematen da Lagun Etxea zentroarekiko ituna.

2004ko martxoaren 25ean, Gizarte Ongizate zuzendari nagusiak idazki bat igorri zuen eta horren bidez haxe adierazi zuen: "1992ko maiatzaren 26an, Nafarroako Gobernuak eta Andre Mari Doloretakoa Kaputxino hirugarrendarren kongregazioak sinatutako lankidetzak akordioan ezarritakoaren ondorioetarako, Mutiloabeitiko Lagun

Etxean egoitzari emanen diozuen erabilerari buruzko informazioa eskatzen dugu"

2004ko maiatzaren 3an, Andre Mari Doloretakoa Kaputxino hirugarrendarren kongregazioko probintziako nagusiaren idazkia sartu zen Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Nagusiko erregistroan, eta bertan sinatutako lankidetzak akordioa indarrean mantentzeko asmoa adierazten zen.

2004ko maiatzaren 7an, Ikuskapen Atalak instalazioak ikuskatu zituen eta egiaztatu zuen bertan ez zela inor bizi eta ez zela jarduerarik egin akordioa bertan behera geratu zenetik.

2004ko maiatzaren 26an, Gizarte Ongizateko zuzendari nagusiak bilera egin zuen kongregazioko arduradunekin, eta haiek jakinarazi zioten gizarte arazoak zituzten adingabekoentzako zentroa irekita mantendu nahi zutela eta zerbitzu horren zehaztasunak laster egingen den proposamen batean adieraziko zirela. Baina oraindik ez dugu proposamenik jaso.

Bere aldetik, Gizarte Ongizate Zuzendaritza Nagusiak gai horri buruzko txosten juridikoa eskatu du. Txosten horretan zehazten denez, aplikagarria den araudia kontuan hartuta, dirulaguntza itzuli beharko da, arau-haustea gertatu eta urtebeteko epean kongregazioak ez badu berrabiarazten dirulaguntzaren xede den jarduera edota berori aldatzeko baimenik ez bazaio ematen. Hori dela eta, beharrezkoa da epe hori amaitu arte itxarotea dirulaguntza itzultzeko prozedura hasi aurretik. Prozedura horren preskripzio epea 5 urtekoa da.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2004ko abuztuaren 20an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, merkataritzaren arloko epaitegi bat ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M^a Gracia Iribarren Ribas andreak merkataritzaren arloko epaitegi bat ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko ekainaren 15eko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento del Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas jaunak galdera egin du merkataritzaren arloko epaitegi bat ezartzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Esan diezagutela ea gobernuak funtsezkotzat jotzen duen epaitegi hori Nafarroako Foru Komunitatean ezartzea.

Hala da. Nafarroako Gobernuaren ustez, Nafarroako epaitegien antolamenduan merkataritzaren arloko epaitegi berri bat sortzea, gaur egun daudenez gain, funtsezkoa da Konkurtso erreformarako uztailaren 9ko 8/2003 Lege Organikoaren ondoriozko espediente judizialei behar den bezalako bultzada emateko.

2.- Hala bada, Nafarroako Gobernuak azal ditzala zein urrats egin dituen foru erkidegoan Merkataritzaren arloko Epaitegia ezar dedin.

Nafarroako Gobernuak, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren bidez, ahal izan duen guztia izan ditu, 2004. urtearen hasieratik, Justizia Ministerioak merkataritzaren arloko beste epaitegi bat sor zezan Nafarroarako; izan ere, organo hori da epaitegien antolamenduaren zabal-kuntzak onesten dituena. Eskaera horiek Justizia

Ministeriora igorri dira, azken urteko jarduera ekonomikoari buruzko datuekin batera –gure ustez, datu horien arabera, bistakoa da beste epaitegi bat sortzeko beharra–. Halaber, Justizia Ministerioak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta autonomia erkidegoek osatutako batzorde mistoan proposatu zen 2004ko maiatzaren 26an. Horren ondorioz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak merkataritzaren arloko epaitegiak errege dekretu bidez sortu aurretiko txostena eman zuen, hain zuzen, Nafarroan beste epaitegi bat sortzearen aldekoa.

Tamalez, Justizia Ministerioak ez ditu aintzat hartu, ez txostenak, ez Nafarroako Gobernuaren eskaerak, eta hala, bada, uztailaren 9ko 1649/2004 Errege Dekretuak ez du epaitegi berririk sortu Nafarroarako, ez merkataritzaren arloko-rik, ez lehen auzialdikorik, irailaren 1etik aurrera merkataritzaren arloko espediente judizialak tramitatu ahal izateko.

3.- Epaitegirik ez zela jarriko jakin denean, zein urrats egin dira ukitutako erakunde ezberdinekin? Zein neurri hartu behar dira azkenean epaitegia sor dadin lortzeko?

Galdera horri erantzuteko, aurreko erantzunaren haritik, esan daiteke Justizia Ministerioak ez dituela onartu Nafarroako Gobernuak 2004. urterako eginiko aurreikuspenak. Hala ere, hori ez da eragozpena hurrengo urterako berariazko beste epaitegi bat sortzea eskatzen jarraitzeko behar den foro guztietan, eta espero dugu Justizia Ministerioak aintzat hartzea Nafarroako Gobernuaren eskaera, serioa, dokumentatua eta arrazoizkoa baita.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abuztuaren 31n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Volkswagen Navarra ixteak sortuko lituzkeen ondorio sozio-ekonomikoen gaineko azterlan bat egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Volkswagen Navarra ixteak sortuko lituzkeen ondorio sozio-ekonomikoen gaineko azterlan bat egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko ekainaren 21eko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Volkswagen Navarra ixteak sortuko lituzkeen ondorio sozio-ekonomikoen gaineko azterlan bat egiteari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1. galdera

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak ez du Volkswagen multinaziona-

lak Nafarroan duen planta ixteak sortuko lituzkeen ondorio sozio-ekonomikoen gaineko azterlanik egitea eskatu, ez zuzenean, ez zeharka.

Gai horrekin lotuta, gogorazi nahi nizuke iragan abuztuaren 31n Volkswagen Navarrako zuzendaritzak eta Nafarroako Gobernuak akordioa sinatu zutela, 105 ingeniari hautatzeko eta prestatzeko, Landabengo lantegiko plantilla berritzatzeko xedearekin. Akordio horretan prestatutako langileen % 60, gutxienez, kontratatuzko konpromisoa jasotzen da. Akordioa sinatzeko ekitaldian, Volkswagen Navarrako arduradunek argi azaldu zuten beren asmoa, lantegi horrek funtzionamenduan jarrai dezan.

2. galdera

Ez da bidezkoa.

3. galdera

Ez da bidezkoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 1ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontselaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuko auzitegiko medikuen plantillari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuko auzitegiko medikuen plantillari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko ekainaren 28ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuko auzitegiko medikuen plantillari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Auzitegiko zenbat mediku daude Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuaren plantillan?

Urriaren 15eko 296/2001 Foru dekretuan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuaren plantillan auzitegiko medikuen kidegoko 9 lanpostu daude, horrela banatuta:

Zuzendaria	1
Zerbitzuburuak	2
Orokorrak	6

Lau lanpostu daude hutsik, bitarteko izaeraz beterik.

2.- Auzitegiko zenbat medikuk du destinoa Iruñean eta zenbatek beste epai-barrutietako ordezkari izaten dira?

Azaroaren 13ko 355/2000 Foru Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, "1. Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuaren egoitza Iruñean izanen da. 2. Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuaren jardunaren eragin esparrua Nafarroako Foru Komunitate osoa izanen da."

Horren arabera, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuari atxikitako langile guztiek dute destinoa Iruñean. Galderan eta azaroaren 13ko 355/2000 Foru Dekretuaren 7. artikuluan aipatzen diren ordezkariak Auzitegiko Medikuntzaren Klinika Zerbitzuarenak dira eta ezin daiteke esan langileen destinoko zentroak direnik, baizik eta epai-barruti bakoitzeko egoitzan dauden "lokalak", non zerbitzu horri atxikitako langileek beren eginkizunak betetzen dituzten, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuaren barne antolamenduaren arabera.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 3an

Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, bidaiarien garraio publikoaren arloan dauden jarduketa aurreikuspenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak bidaiarien garraio publikoaren arloan dauden jarduketa aurreikuspenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko ekainaren 15eko 53. eta ekainaren 28ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialetan argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du bidaiarien garraio publikoaren arloan dauden jarduketa aurreikuspenei eta Ciudad del Transporte de Pamplona, S.A.-ren zabalkuntza kudeatzeko sistemari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Bidaiarien garraio publikoaren arloan, zein jarduketa aurreikusi ditu departamentuak arautzeari, funtzionamendu araubideari eta aplikazio-eremuari dagokienez? Nola parte hartuko du departamentuak zerbitzu publikoaren finantziazioan?

Galderaren anbigutasuna dela eta, ez baita zehazten ez esparru ez erabili beharreko garraio-bidea, erantzunean kontuan hartuko dira hiriarteko garraioa eta autobus linea bidezko bidaiarien garraio erregularra.

Beraz, ez da kontuan hartuko hiri barneko bidaiari-garraioa, ezta ibilgailu bidezko bidaiarien garraioa (taxia) ere. Halaber, tren edo aire bidezko bidaiari-garraioa ere ez da kontuan hartuko.

Errepide bidezko bidaiarien garraio publikoa arautua dago Lurreko garraioen antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legean eta lege hori garatzen duen erregelamenduan, hain zuzen, Lurreko garraioen antolamenduari buruzko legearen erregelamendua onesten duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuan.

Arau horiek garatzeko, hainbat dekretu eta ministro-agindu eman dira, lurralde nazional osoan aplikagarriak direnak.

Nafarroan hainbat arau eman dira estatuko araudia aplikatzeko. Horien artean aipagarriak dira, aztertzen ari garen gai zehatzari lotuta, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren apirilaren 13ko 290/2000 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitatean "Joan eta etorri" bidaiarien garraio zerbitzua ezartzeko jarraibideak onesten dituen, eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren maiatzaren 23ko 464/2001 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitatean "Joan eta etorri" bidaiarien garraio zerbitzua ezartzeko jarraibideak aldatzen dituen.

Errepide bidezko bidaiarien garraio zerbitzu publikoari dagokionez, ezarritako sistema administrazio-kontzesioena da.

Gure kasuan, Nafarroak eskumena du linea erregularrak arautzeko, baldin eta beren ibilbidearen zatirik handiena Nafarroako lurraldetik igarotzen bada. Hori gure foru araubidearen berariazko ezaugarria da.

Gaur egun, bidaiarien garraiorako linea erregularren 36 kontzesio daude, 19 enpresen eskutan.

Gaur egun, egiten den gauza bakarra da enpresek, beren kontzesioekin lotuta, eskatzen dituzten aldaketak, edota administrazio publikoaren ekimenez egiten direnak, tramitatu.

Bidaiarien garraiorako linea erregularrei buruzko arau berriak emanen dira, kontzesio horien indarraldia amaitzen den heinean. 1987. urteko legean ezarritako indarraldia 20 urtekoa zen.

Hori dela eta, kontzesioak 2007tik aurrera berrituko dira. Hala ere, kontzesio-hartzaile gehienek 5 urteko luzapena lortu zuten; horrenbestez, indarraldi osoa 2012. urtean amaituko da, aurrerago azaltzen denez.

Aurreikusitako funtzionamendu araubidea gaur egungo berbera da, hau da, administrazio-kontzesioa, kasuan kasuko deialdi publikoen bidez.

Aplikazio eremuak gaur egun indarrean dagoen araudian zehazten dena izan behar du.

Departamentuaren partaidetza zerbitzu publikoaren finantzazioan

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ondoko jarduketa-lerroak jarraitu ditu bidaiarien garraiorako zerbitzu publikoa finantzatzeko:

Jakina denez, lehenik eta behin Iruñeko autobus geltokian egingo diren jarduketak nabarmendu behar dira.

2004ko ekainaren 24an Yanguas y Miranda kalean eraikiko den Iruñeko autobus geltoki berria finantzatzeko akordioa sinatu zuten Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak eta Iruñeko alkateak, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren izenean, hurrenez hurren.

Geltokiaren finantzazio publikoa horrela banatuko da: % 60, Nafarroako Gobernuaren kontura, eta % 40, berriz, Iruñeko Udalaren kontura.

Linea erregularrei ematen zaizkien dirulaguntzei dagokienez, hona hemen jarduketa aipagarriak:

1.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren apirilaren 28ko 435/2003 Foru Aginduaren bidez, Aguilar del Río Alhama eta Tuterako bidaiarien erabilera orokorrerako etengabeko garraio publiko erregularraren kontzesioa aldatu zen, Corella-Castejón (NA-21) adarra barne. Hala, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eta Tuterako, Corella, Cintruénigo eta Fiteroko Udalen eta Automóviles del Río Alhama, S.A. (ARASA) enpresaren arteko lankidetzak akordioaren testu onetsi zen. Akordio horren bidez, kontzesio horren finantzazio sistema ezartzen da.

Zerbitzua 2003ko maiatzaren 1ean hasi zen ematen. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak defizitaren % 65 finantzatu zuen eta udalek, berriz, gainerako % 35a.

2.- Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren ekainaren 11ko 664/2003 Foru Aginduaren bidez jendaurrean jarri zen Iruñea eta Logroño arteko bidaiarien erabilera orokorrerako etengabeko garraio publiko erregularraren kontzesioaren aldaketa, adar guztiak barne (NA-11). Kontzesio horren aldaketa behin betikoz onetsi zen uztailaren 28ko 719/2004 Foru Aginduaren bidez.

Departamentuak egin asmo dituen jarduketei dagokienez, laster finantzazio-akordioa sinatuko du Lizarra, Deierrri, Aiegi, Oteitza, Villatuerta eta Abartzuzako udalekin (horren bidez, departamentuak defizitaren % 65 finantzatuko du eta gainerako % 35a, berriz, udalek, biztanle kopuruaren arabera) eta eskualdeko biztanleak hiriburura eta Lizarrako Ospitalera eramateko zerbitzua abian jarriko du.

2004. urterako, 95.091,01 euroko aurrekontu kontsignazioa dago horretarako hitzarturik.

3.- Garraio eta Telekomunikazio zuzendari nagusiaren abuztuaren 13ko 250/1999 Ebazpena-

ren bidez administrazio-baimen berezia eman zen, Goizueta eta Hernani arteko bidaiarien erabilera orokorrerako errepideko etengabeko zerbitzu publiko erregularra emateko. Halaber, zerbitzu hori emateko baimena berritu zen abuztuaren 31ko 2741/2000 Ebazpenaren bidez.

Horren bidez, 2004. urterako 33.010,31 euroko aurrekontu kontsignazioa dago, zerbitzua ematearen ondorioz sortutako defizitari aurre egiteko.

4.- Garraio eta Telekomunikazio zuzendari nagusiaren martxoaren 22ko 909/2000 Ebazpenaren bidez administrazio-baimen berezia eman zen, Iruñea eta Iruñeko Garraioaren Hiriaren arteko bidaiarien erabilera orokorrerako errepideko etengabeko zerbitzu publiko erregularra emateko.

Horren bidez, 2004. urterako 31.093,52 euroko aurrekontu kontsignazioa dago kontzesioa mantentzeko hartutako betebeharrari aurre egiteko.

5.- Martxoaren 6ko 914/1995 Foru Aginduaren bidez Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eta Leatxeko Udalaren arteko lankidetzak akordioa onetsi zen, Leatxe eta Oibar artean bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoa ezartzeko.

Zerbitzuaren kostuari dagokionez, adostu zen departamentuak % 50 ordainduko zuela eta udalak, berriz, gainerako % 50a. 2004. urterako aurreikuspenen arabera, kostua 376,52 eurokoa izanen da, eta horretarako bada behar den aurrekontu kontsignazioa.

6.- Martxoaren 6ko 913/1995 Foru Aginduaren bidez Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eta Galipentzu, Zare, Eslaba, Lerga eta Agezako udalen arteko lankidetzak akordioa onetsi zen, herri horietatik Oibarrera bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publikoa ezartzeko.

Zerbitzuaren kostuari dagokionez, adostu zen departamentuak % 50 ordainduko zuela eta udalak, berriz, gainerako % 50a.

2004. urterako aurreikuspenen arabera, kostua 3.822,22 eurokoa izanen da, eta horretarako bada behar den aurrekontu kontsignazioa.

7.- Urtero dirulaguntzen deialdia egiten da, garraio publikorik ez duten hiriguneei zerbitzua ematea xede duen hiri arteko bidaiarien errepide bidezko garraioa finantzatzeko, baita trafiko berriak, abialdi kopuruaren handitzeak edota jada

badauden kontzesioekin loturak ezartzeko zerbitzuak ere. Dirulaguntza horien onuradunak dira halako zerbitzuak beren aurrekontuen kargura diruz laguntzen dituzten udal eta kontzejuak.

Iragan urtean, hauek izan dira dirulaguntzak jaso dituzten udal eta kontzejuak:

- Uxueko Udala
- San Martin Unxeko Udala
- Etxauriko Udala
- Arradako Kontzejua
- Oltzako Udala
- Eguesibarko Udala
- Galar Zendeako Udala
- Figaroleko Kontzejua
- Metautengo Udala
- Ultzamako Udala
- Basaburuko Udala

Halako dirulaguntzak ematen jarraitzeko asmoa du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak.

8.- Azken urteotan dirulaguntzen lerro bat izan da ustiapenean defizita duten erabilera orokorreko bidaiarien garraiorako linea erregularrak finantzatzeko, horiek mantentzea oso garrantzitsua dela uste baitugu.

2003. urtean ez zen egin dirulaguntzen deialdi hori, ez baitzegoen horretarako aurrekontu kontsignaziorik, baina Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak hurrengo urteetan deialdi hori berreskuratzeko asmoa du.

2. Zein kudeaketa, programazio eta plangintza sistema aurreikusi du departamentuak Garraioaren Hiriaren zabalpenerako?

Gaur egun, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua eta Ciudad del Transporte de Pamplona, S.A. sozietatea aztertzen eta baloratzen ari dira zer forma juridiko, administratibo eta tekniko erabili Garraioaren Hiria handitzeko proiektua gauzatzeko eta garatzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 6an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroako toki entitateei, turismo partzuergoei eta zenbait elkarteri dirulaguntzak emateko deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Nafarroako toki entitateei, turismo partzuergoei eta zenbait elkarteri dirulaguntzak emateko deialdian agiriak aurkezteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko uztailaren 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du 2004. urtean sustapen jarduerak egin behar zituzten elkarte, toki entitate eta administrazio partzuergoei laguntza emateko deialdian agiriak aurkezteari buruz. Hona Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1.- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren apirilaren 19ko 72/2004 Foru Aginduaren bidez (maiatzaren 14ko 58. Nafarroako Aldizkari Ofiziala) onetsi zen 2004. urtean sustapen jarduerak egin behar zituzten elkarte, toki entitate eta administrazio partzuergoei laguntza emateko deialdia.

Deialdi horren 2.3.1. oinarrian ezartzen denez, elkarteek “dagokien erregistroko inskripzioaren kopia eta elkartearen estatutuena eta hurrengo aldaketena, halakorik bada”, eta “entitatearen legezko ordezkarien identifikazioa eta haien ahalordetzea” aurkeztu beharko dituzte beren eskaerarekin batera, beste agiri batzuez gain.

2.- Deialdiaren 2.3. oinarrian ezartzen da zer agiri aurkeztu beharko diren entitate eskatzaileen nortasunari buruz. Hala ere, lehen paragrafoan muga bat ezartzen da, alegia, agiri horiek aurkeztu beharko dituztela soilik aurreko urteetan dirulaguntzarik eskatu ez duten entitateek (elkarteek) edota daturen bat aldatu bada. Izan ere, aurreko urteetan eskaera aurkeztu duten elkartei buruzko datuak departamentuaren artxiobotan daude.

Aipatu deialdia egiterakoan, kontuan hartu zen zein elkartek jaso zitzaizkien dirulaguntzak. Hiru motatakoak ziren:

1. Turismo elkarteak. Horiek Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak duen erregistroan eman behar dute izena.

2. Elkarteak, oro har, Nafarroako turismoa bultzatzea helburu dutenak eta Foru Komunitatean bakarrik dihardutenak.

3. Beste elkarte batzuk.

Azken bi elkarte mota horiek izena emanda egon daitezke Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren menpe dagoen Nafarroako Gobernuaren elkartearen erregistroan, edo bestelako erregistroetan.

Hau da, elkartei deialdi honetara aurkezteko eskatzen zaien “auzotasun” baldintza bakarra da egoitza Nafarroan izatea, eta horien artean egon daitezke Nafarroan soilik dihardutenak, eta horrenbestez, Lehendakaritza Departamentuko erregistroan izena emanda daudenak, baita Nafarroakoa baina jarduketa-eremu zabalagoa dutenak ere, nazio mailakoak edo nazioartekoak, eta halakoe-tan, inskripzioa estatuko administrazioaren menpe dago, Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak eta aztergai dugun alderdia garatzen duen azaroaren 28ko 1497/2003 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraikiz.

3.- Azaroaren 26ko 30/1992 legearen 35 f) artikuluan aitortutako eskubidearen aplikazio eremua jardun duen administrazioa soilik ukitzen du, kasu honetan, Nafarroako Foru Komunitatea, eta ez beste administrazio batzuk. Hori dela eta, balizko interesdunak zer erregistrotan izena emanda egon behar duten a priori jakin gabe, deialdian ez zen zehaztu eskubide hori baliatzeko aukera beren estatutuak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko erregistroan jasota dituzten elkarteentzat.

4.- Hala ere, baldintza horren ordez, Nafarroako Turismo Erregistroan izena emanda egoteko eskatuko da hurrengo deialdietan, Nafarroako Turismo Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen duen abuztuaren 25eko 502/2003 Foru Dekretuaren 2.4 artikuluan xedatu-

takoari jarraikiz; izan ere, erregistro horri dagozki on inskripzio prozedurak laster argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Hortik aurrera, departamentuak bere erregistroa izanen du eta bertan aurkitu ahalko du elkarte guztiei buruzko dokumentazioa, jardun eremua kontuan hartu gabe, eta ez da beharrezkoa izanen interesatuek elkartearen estatutuen eta hurrengo aldaketen kopiarik aurkez dezaten, ezta entitatearen legeko

ordezkarien identifikaziorik eta haien ahalordetzerik ere.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko irailaren 9an

Kultura eta Turismo Departamentua-Vianako Printzea Erakundea Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, ikasketa artistikoetan ikastetxe nazional nahiz atzerrikoetan sakontzen laguntzeko deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak ikasketa artistikoetan ikastetxe nazional nahiz atzerrikoetan sakontzen laguntzeko deialdian agiriak aurkezteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko uztailaren 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du ikasketa artistikoetan ikastetxe nazional nahiz atzerrikoetan sakontzen laguntzeko deialdian agiriak aurkezteari buruz. Hona Kultura eta Turismo kontseilariaren erantzuna:

1.- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren apirilaren 29ko 79/2004 Foru Aginduaren bidez (maiatzaren 10eko 56. Nafarroako Aldizkari Ofiziala) onetsi ziren ikasketa artistikoetan ikastetxe nazional nahiz atzerrikoetan sakontzen laguntzeko deialdiaren arau-oinarriak.

Deialdi horren 5.3.10. oinarrian ezartzen denez, eskaerarekin batera “eskatzailleak bere zerga eginbeharrak eguneraturik dituela frogatzeko agiria, 2003. urteari dagokiona, organo eskudunak emana”, aurkeztu beharko du, beste agiri batzuek gain.

2.- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak dirulaguntza publikoak emateko hainbat prozeduratan eskatzen ditu eskatzailleak bere zerga eginbeharrak eguneraturik dituela frogatzeko agiria, Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 8.2.e) artikuluan xedatutakoari jarraikiz; izan ere, bertan ezartzen da onuradunaren betebeharrak bat dela dirulaguntza kobratu aurretik “eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezartzen duen eran, frogatzea Nafarroako Ogasun Publikoarekin dituen betebeharrak bete dituela”.

Legearen eskakizun horren aurrean, bi aukera balia daitezke dirulaguntzak emateko deialdi publikoak egiterakoan: onuradunek agiri horiek aurkeztea, edo prozeduraren instrukzioa egiten duen organo edo unitateak agiri horiek ofizioz egiaztatzea eta espedientean sartzea, dirulaguntza ordaindu aurretik.

Egia da Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. f) artikuluan herritarren eskubide sorta zabala aitortzen dela, eta horien artean, herritarrek eskubidea dutela “ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokkeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere”. Eskubide horiek zuzenean aplikatzen badira ere, tarteko arauen beharrik gabe, horiek gauzatzeko tributuaitorpenei eta horietan adierazten diren datuei buruzko beste arau batzuk ere interpretatu behar dira.

Alde batetik, kontuan hartu behar da Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra; izan ere, 9.1 h) artikuluan ezartzen denez, herritarrak “eskubidea du, legeek agintzen duten moduan, tributu administrazioak lortu dituen datuak, txostenak edo aurrekariak sekretuak izateko. Ez da zilegi izan horiek erabiltzea Administrazioak kudeatu behar dituen tributu edo baliabideak egitez aplikatzeko baizik, eta ezin izan zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, legeek aurreikusirikoa kasuetan salbu”.

Azaroaren 26ko 30/1992 legearen 35. artikuluan aitortutako eskubidearen mugak modu egokian ezartzeko kontuan hartu behar den bigarren araua da Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.

3.- Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuen arteko lankidetzaren printzipioaren ondorioz administrazioek datuak elkarri eskatzeko aukerak ez du inolaz ere baztertzen interesdunen baimena lortzeko beharra. Halaber, lortutako datuak modu egokian erabiltzeko, bermeak eta hainbat datu emateko beharra ezartzen dira arau horretan: datu pertsonalak, batzuetan –Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, pertsona fisikoentzat, eta Identifikazio Fiskaleko Kodea, pertsona juridikoentzat edo pertsonalitate gabeko entitateentzat– eta erresebatuak, besteetan, hala nola Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dituen datuak ikusi ahal izateko sarbide-gakoa.

Horren alde agertu zen estatuko legegilea azaroaren 26ko 30/1992 legearen hemezortzigarren xedapen gehigarria eman zuenean (Neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko abenduaren

27ko 24/2001 Legearen bidez sartu zuen). Hain zuzen, xedapen horrek ezartzen duenez, “aurreko idatz-zatietan aipatzen diren eskaera eta jakinarazpenekin batera aurkeztu beharreko tributu ziurtagirien nahiz Gizarte Segurantzako ordez kasuan kasuko datuak emanen dizkiote entitate eskudunek organo kudeatzaileari, baldin eta interesdunak berariazko baimena ematen badu”.

Ildo beretik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23.3 artikulua ezartzen du “onuradunak eskaera aurkezteak berekin dakarrela organo kudeatzaileari baimena ematea Estatuko Tributu Administrazioaren Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko”.

4.- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak dirulaguntzak emateko deialdien berrikusketa orokorra egingen du, eta deialdi horietan aipatutako aukera jasotzea aztertuko du, hau da, interesdunak eskaera aurkezteak berekin ekartzea baimena ematea Nafarroako Tributu Ogasunak ematen dituen ziurtagiriak eskatzeko.

Azterketatik ondorioztatzen bada formula horrek Nafarroako dirulaguntzei buruzko araudia- ren lege babesa duela, hurrengo deialdietan sartuko da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 9an

Kultura eta Turismo Departamentua-Vianako Printzea Erakundea Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, zinema sorkuntzarako laguntzak emateko deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak zinema sorkuntzarako laguntzak emateko deialdian agiriak aurkezteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko uztailaren 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du zinema sorkuntzarako laguntzak emateko 2004. urteko deialdian agiriak aurkezteari buruz. Hona Kultura eta Turismo kontseilariaren erantzuna:

1.- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren ekainaren 2ko 160/2004 Foru Aginduaren bidez (ekainaren 10eko 70. Nafarroako Aldizkari Ofiziala) onetsi ziren zinema sorkuntzarako laguntzak emateko deialdiaren arau-oinarriak.

Deialdi horren 4.4.b. oinarrian ezartzen denez, eskaerarekin batera “eskatzaileak bere zerga eginbeharrak eguneraturik dituela frogatzeko agiria, organo eskudunak emana;” aurkeztu beharko du, beste agiri batzuek gain.

2.- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak dirulaguntza publikoak emateko hainbat prozeduratan eskatzen ditu eskatzaileak bere zerga eginbeharrak eguneraturik dituela frogatzeko agiria, Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 8.2.e) artikuluan xedatutakolari jarraikiz; izan ere, bertan ezartzen da onuradunaren betebeharrak bat dela dirulaguntza kobratu aurretik “eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezartzen duen eran, frogatzea Nafarroako Ogasun Publikoarekin dituen betebeharrak bete dituela.”

Legearen eskakizun horren aurrean, bi aukera balia daitezke dirulaguntzak emateko deialdi publi-

koak egiterakoan: onuradunek agiri horiek aurkeztea, edo prozeduraren instrukzioa egiten duen organo edo unitateak agiri horiek ofizioz egiaztatzea eta espedientean sartzea, dirulaguntza ordaindu aurretik.

Egia da Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. f) artikuluan herritarren eskubide sorta zabala aitortzen dela, eta horien artean, herritarrek eskubidea dutela “ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkikeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere.” Eskubide horiek zuzenean aplikatzen badira ere, tarteko arauen beharrik gabe, horiek gauzatzeko tributu-aitorpenei eta horietan adierazten diren datuei buruzko beste arau batzuk ere interpretatu behar dira.

Alde batetik, kontuan hartu behar da Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra; izan ere, 9.1 h) artikuluan ezartzen denez, herritarrek “eskubidea du, legeek agintzen duten moduan, tributu administrazioak lortu dituen datuak, txostenak edo aurrekariak sekretuak izateko. Ez da zilegi izan horiek erabiltzea Administrazioak kudeatu behar dituen tributu edo baliabideak egitez aplikatzeko baizik, eta ezin izan zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, legeek aurreikusiriko kasuetan salbu.”

Azaroaren 26ko 30/1992 legearen 35. artikuluan aitortutako eskubidearen mugak modu egokian ezartzeko kontuan hartu behar den bigarren araua da Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.

3.- Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuen arteko lankidetzaren printzipioaren ondorioz administrazioek datuak elkarri eskatzeko aukerak ez du inolaz ere baztertzen interesdunen baimena lortzeko beharra. Halaber, lortutako datuak modu egokian erabiltzeko, bermeak eta hainbat datu emateko beharra ezartzen dira arau horretan: datu pertsonalak, batzuetan –Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, pertsona fisikoentzat, eta Identifikazio Fiskaleko Kodea, pertsona juridikoentzat edo pertsonalitaterik gabeko entitateentzat– eta erresebatuak, besteetan, hala nola Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dituen datuak ikusi ahal izateko sarbide-gakoa.

Horren alde agertu zen estatuko legegilea azaroaren 26ko 30/1992 legearen hemezortzigarren xedapen gehigarria eman zuenean (Neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legearen bidez sartu zuen). Hain zuzen, xedapen horrek ezartzen duenez, "aurreko idatz-zatietan aipatzen diren eskaera eta jakinarazpenekin batera aurkeztu beharreko tributu ziurtagirien nahiz Gizarte Segurantzakoen ordezkasun kasuko datuak emanen dizkiote entitate eskudunek organo kudeatzaileari, baldin eta interesdunak berriazko baimena ematen badu"

Ildo beretik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23.3 artikulua ezartzen du "onuradunak eskaera aurkezteak berekin dakarrela organo kudeatzaileari baimena ematea Estatuko Tributu Administrazioaren Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko"

4.- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak dirulaguntzak emateko deialdien berrikusketa orokorra egingen du, eta deialdi horietan aipatutako aukera jasotzea aztertuko du, hau da, interesdunak eskaera aurkezteak berekin ekartzea baimena ematea Nafarroako Tributu Ogasunak ematen dituen ziurtagiriak eskatzeko.

Azterketatik ondorioztatzen bada formula horrek Nafarroako dirulaguntzei buruzko araudia- ren lege babesa duela, hurrengo deialdietan sartuko da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 9an

Kultura eta Turismo Departamentua-Vianako Printzea Erakundea Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Altsasuko Aralarko Mikel Donea lanbide heziketako institutuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Altsasuko Aralarko Mikel Donea lanbide heziketako institutuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu da. Galdera 2004ko uztailaren 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Altsasuko "Aralarko Mikel Donea II" Bigarren Hezkuntzako Institutuari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Altsasuko "Aralarko Mikel Donea II" Bigarren Hezkuntzako Instituturako izen-emate kopuruak honako hauek izan dira, ikasturtez ikasturte, lanbide hastapeneko programetako ikasleena barne:

1997-1998 ikasturtea: 134 ikasle

1998-1999 ikasturtea: 91 ikasle

1999-2000 ikasturtea: 88 ikasle

200-2001 ikasturtea: 84 ikasle

2001-2002 ikasturtea: 91 ikasle

2002-2003 ikasturtea: 93 ikasle

2003-2004 ikasturtean: 85 ikasle

2004-2005 ikasturtea: 80 ikasle

Titulazioak amaitu dituzten ikasleen kopurua haxe izan da, 1997-1998 ikasturtetik hona:

	Teknikari laguntzailea	Teknikari espezialista	Teknikaria	Goi mailako teknikaria
1997/1998 ikasturtea	11	31	-	-
1998/1999 ikasturtea	15	30	9	-
1999/2000 ikasturtea	8	30	17	-
2000/2001 ikasturtea	3	3	22	6
2001/2002 ikasturtea	-	2	29	5

2002/2003 ikasturtea	-	-	5	10
2003/2004 ikasturtea			17	-

Hezkuntza Departamentuak, Enpleguko Institutu Nazionalako Zuzendaritza Probintzialarekin batera, lanbide heziketako titulurik duten gazteen lan-munduratzeari buruzko ikerketak egiten ditu. Ikerketa horiek lanbide heziketako lanbide arlo desberdinetako tituluak dituzten gazteei egiten zaizkien kontratazioak jorratzen dituzte, baita lortutako lanpostuen eta ikasleen lanbide espezialitateen arteko lotura ere, hau da, kontratazioaren egokitasuna.

Lan-munduratzeari buruzko ikerketak egiteko, ondoko datuok gurutzatzen dira: Hezkuntza Departamentuak ikasle tituludunen kopuruari buruz dituenak eta Enpleguko Institutu Nazionalak Espainia osoko lan-munduratzeari buruz dituenak.

Azken ikerketak titulatu eta hurrengo 12 hilabeteetan 2.544 gazte tituluduni egindako kontratuen kopurua bildu zuen. Hona hemen alderdi garrantzitsuenetako batzuk:

- Nafarroan lanbide heziketako ikasketak amaitu eta lan egin nahi duten ikasleen % 90ek enplegua lortzen du urtebeteko epean.

- Kontratutako ikasleen % 16,2k kontratu finkoa lortzen du epe horretan. Oso ehuneko handia da hori, lan esperientziarik gabekoak direla kontuan hartuta.

- Kontratutakoen % 55i bere lanbide arloari zuzen-zuzenean lotutako lan jarduerak egiteko egiten zaio kontratua, hau da, egokitasun maila handia izaten da. Datu horrek, beraz, gazte tituludunentzako kontratazioaren kalitatea islatzen du.

- Horren garrantzia bere neurrian baloratzeko, datuek lanbide heziketako ikasketak amaitu eta urtebeteko epean lan egitea eskatzen duten pertsonak soilik hartzen dituztela kontuan hartu behar da.

Altsasuko "Aralarko Mikel Donea" Bigarren Hezkuntzako Institutuak, aldiz, hainbat ekimen burutzen ditu, bertako ikasleen lan-munduratzeari sustatzea xede dutenak. Hona hemen horietako batzuk:

– Lanbide heziketako ziklo guztietan badago berariazko modulu bat: “Lanerako prestakuntza eta orientazioa”. Moduluko irakasleak eskualdean gaia jorrotzen duten hainbat organismoekin batera aritzen dira.

– Lan munduan modu egokian sartzeko esku aldean dauden baliabideen berri ematen zaie ikasleei. Datu-base bat ematen zaie, Sakana eta Larraun inguruan euren lanbideari lotutako enpresa guztiak biltzen dituen. Ondokoa ere ikasleekin

batera egiten da: curriculuma nola osatu, enplegua nola eskatu eta lan elkarrizketak nola prestatu.

Cederna Garalur elkartearen zein CEIN zentroaren lankidetzarekin batera, auto-enpleguaren aukera sustatzen da ikasleen artean. Horretarako, enpresa edo tailer txiki bat sortzeko proiektua egiten da, proiektuaren bideragarritasuna aztertzen da eta eman beharreko pauso guztiak azaltzen dira.

Irakasle kopuruen gaineko datuak, 2004. urtekoak, hauexek dira:

Especialitatea	Plantilla organikoa (1)			Funtzionamenduzko plantilla (2)
	Plantilla 2004	Beteak 2004	Betegabeak 2004	
Lanerako prestakuntza eta orientazioa	1	1	0	1
Merkataritzako antolaketa eta kudeaketa	0	0	0	0
Fabrikazio mekanikoaren antolaketa eta proiektuak	2	1	1	2
Psikologia eta pedagogia	0	0	0	0
Instalazio elektroteknikoak	1	1	0	1
Makinen mantenimendua eta mekanizazioa	4	1	3	4
Soldadura	2	2	0	3
Merkataritzako prozesuak	0	0	0	0
Guztira	10	6	4	11

Oharrak: (1) Behin betiko irakasleek bete beharreko plantilla.

(2) Plantilla beharrezkoa espezialitateko orduak emateko. Lanpostu osoak (espezialitateko 18 ordu, gutxienez, dituztenak) bakarrik zenbatu dira.

Plantillaren egoera honelakoxea da, espezialitatez espezialitate:

– Lanerako prestakuntza eta orientazioa

Espezialitateko ordu kopuruak behin betiko lanpostu bat izatea ahalbidetzen du, eta lanpostu hori beteta dago egun. Ez dago, ordea, nahikoa orduak behin betiko bigarren lanpostu bat osatzeko. 2003-2004 ikasturtean bigarren irakasle bat kontratatatu zen, zuzendaritzako orduak betetzeko.

– Merkataritzako antolaketa eta kudeaketa

2003-2004 ikasturteak ez zuen espezialitate horretako orduak bildu, institutuak ez baitzuen “Merkataritzako kudeaketa eta marketina” zikloa antolatzeko nahikoa izen-ematerik izan.

– Fabrikazio mekanikoaren antolaketa eta proiektuak.

Hezkuntza eskaintzak ekarritako espezialitate horretako ordu kopuruak bi irakasle izatea ahalbidetzen du, biak ere funtzionamenduzko plantillako-

ak. Ikastetxeko plantilla organikoak espezialitate horretako behin betiko bi lanpostu biltzen ditu; horietako bat beteta dago, eta bestea, hutsik.

– Psikologia eta pedagogia

Ez dago nahikoa espezialitateko orduak irakasle oso bat (18 ordu) izateko funtzionamenduzko plantillan.

– Instalazio elektroteknikoak

Espezialitateko ordu kopuruak irakasle bat izatea eskatzen du funtzionamenduzko plantillan. Ikastetxeko plantilla organikoak lanpostu bat hartzen du, dagokion behin betiko irakasleak bete duena.

– Makinen mantenimendua eta mekanizazioa

Lau irakasle behar dira funtzionamenduzko plantillan. Hezkuntza Departamentuak espezialitate horretako behin betiko lau lanpostu esleitu ditu. Horietako bakarra bete da, eta gainerako hiruak hutsik daude.

– Soldadura

Soldadura espezialitateko orduak hiru irakasle izatea eskatzen dute funtzionamenduzko plantillan. Plantilla organikoak behin betiko bi irakasle hartzen ditu, ordea, “Soldadura eta galdaragintza” zikloaren bi taldeetan izandako izen-emate urriak ez baitu zikloaren sendotzea bermatzen.

– Merkataritzako prozesuak

Ez da irakaslerik aurreikusi funtzionamenduzko plantillan, “Merkataritzako kudeaketa eta marketina” zikloa osatu ez delako (ikasle gutxik eman zuten izena). Ez dago nahikoa espezialitateko ordurik lanpostu bat esleitzeko plantilla organikoan.

– Irakasleriaren balantzea

Lanpostu osoak (18 ordu, gutxienez) ekartzen dituzten espezialitate desberdinetako ordu kopuruak zenbatuta, hamaika irakasle ateratzen dira funtzionamenduzko plantillan. Beharrezko hamaika lanpostu horietatik, departamentuak behin betiko hamar lanpostu esleitu ditu ikastetxeko plantilla organikoan; horrek esan nahi du ikastetxearen funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren irakasleen % 91 sartu dela plantilla organikoan, espezialitateko ikastorduak dituztenen artean, betiere.

Halaber, plantilla organikoak bildutako behin betiko hamar plazetatik 6 beteta daudela eta 4 bete gabe geratu direla agertzen dute datuek.

Adierazita geratu denez, beharrezko espezialitate bakoitzeko ikastordu kopuru osoa duen funtzi-

onamenduzko plantillaren % 91 ikastetxeko plantilla organikoan sartzen da. Horrela, Hezkuntza Departamentuak ikastetxean irakasleria egonkorra ezartzeko administrazio ekimen beharrezkoak hartu dituela ondorioztatu daiteke.

Beste alde batetik, 2003. urtean bederatzi irakasle behin betiko beste hainbeste lanpostu betetzen zuten plantilla organikoan; 2004. urtean, aldiz, behin betiko sei irakasle geratu dira ikastetxean. Beraz, azken urte honetan, behin betiko bederatzi irakasleetatik hiru joan dira, modu boluntarioan, lekualdatze lehiaketa bidez, hain zuzen ere; beste aldetik, ezein irakasle ez du hartu nahi izan, modu boluntarioan, “Aralarko Mikel Donea II” Bigarren Hezkuntzako Institutuan goian adierazitakoaren ondorioz sortutako hiru lanpostu hutsetakoren bat.

Bukatzeko, “Merkataritzako antolaketa eta kudeaketa” eta “Merkataritzako prozesuak” espezialitateetako bi lanpostuak behin betiko irakasle bidez egonkortu ahal izateko, “Merkataritzako kudeaketa eta marketina” heziketa zikloan nahikoa izen-emate lortu beharko du ikastetxeak.

Hezkuntza Departamentuak, eta lanbide heziketako ikastetxeak berak, harremanak izaten ditu Sakanako industria ehunarekin, Sakanako Enpresaburuen Elkartearen bidez. Altsasuko lanbide heziketako ikastetxean prestakuntza jarduerak egiten dira urtero, aipatu elkarteak babestuta, eskualdeko enpresetako langileak helburu dituztenak.

Azken bi ikasturteetan ikastetxean egindako prestakuntza ikastaroak hauexek dira:

	DATAK	ORDUAK
2002-2003 ikasturtea		
AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK	10/14-11/26	30
KONTABILITATEA, FAKTURAZIOA ETA STOCKEN KUDEAKETA	10/13-12/10	50
OFFICE	10/07-11/13	30
ZERBITZU TELEMATIKOAK ERABILTZEA	09/22-10/01	20
LAN TALDEEN AGINTARITZA ETA ZUZENDARITZA	05/27-07/08	40
LAN KONTRATAZIOA, NOMINAK ETA GIZARTE SEGURANTZA	06/02-06/04	6
OFFICE	05/29-07/01	30
AUTOCAD 3D	04/01-05/21	60
ZERBITZU TELEMATIKOAK ERABILTZEA	03/18-03/27	20
2003-2004 ikasturtea		
ZERBITZU TELEMATIKOAK ERABILTZEA	2004/03/15-2004/04/05	20
OFIMATIKA	2004/03/30-2004/05/04	30
2D ETA 3D PLANOEN DISEINU ETA ALDAKUNTZA	2004/04/04-2004/06/04	60
KALKULU-ORRIA (EXCELL)	2004/05/04-2004/06/03	30

Halaber, Hezkuntza Departamentuak “prestakuntza duala” deiturikoa ezarri du Altsasuko lanbide heziketako ikastetxean. Horren bidez, “Soldadura eta galdaragintza” heziketa zikloaren bigarren mailan, ikasketak eta lana tartekatzen dira, bata, ikastetxean, eta bestea, enpresa laguntzailearen batean, urtebeteko lan kontratu baten bidez.

Beste alde batetik, SUNSUNDEGUI S.A. enpresak agertutako prestakuntza beharrak kontuan hartuta, soldadura eta galdaragintzari buruzko ikastaroa eginen da lanbide heziketako ikastetxean. Ikastaroa iraupen luzekoa izanen da, eta lan-gabetuei zuzenduta dago. Enpresak, aldiz, prestakuntza amaitzen dutenak kontratatzeko konpromisoa hartu du.

Horretaz gain, ikastetxeak harreman zuzenak ditu eskualdeko industria ehunarekin. Izan ere, “Prestakuntza lantokietan” modulua ezarri da, derrigorrez, lanbide heziketako heziketa ziklo guztietan. Modulua benetako lan giroan egiten da, eta ikastetxearen eta enpresaren artean burutu beharreko programazioa, segimendua eta ebaluazioa eskatzen du.

Etorkizunean ikastetxean egin beharreko ekipamenduetako inbertsioen planifikazio eta irizpideak ondokoak dira:

- Makineria eta instalazio didaktikoak CE araubideetara egokitzea.

- Segurtasun sistemak makina-erremintetan.

- Instalazioak Europako zuzentzarauiek agindutako lan segurtasun eta higiearen gaineko irizpide berrietara egokitzea.

- Teknologikoki zaharkitua geratu den makineria berritzea.

Makina-erremintak

- Erregulazio eta kontroleko elementu teknikoak: elektrizitatea, elektronika, hidraulika, pneumatika, ... Berrikuntza ekoizpenari aplikatutako telekomunikazio eta informatika teknologia berrietan. Fabrikazioko sistema automatikoak.

- Zaharkitua geratu diren ordenagailuak aldatzea.

- Sistema telematikoak. Ikus-entzunezko sistema digitalak eta multimedia.

- Kontrol numerikoko makina-erremintak.

- Erregulazio eta kontrol automatikoko sistemak.

- Fabrikazio malguko sistemen aplikazioa.

- Fabrikazio malguko unitateak.

- Robotika.

- Baliabide informatikoak sartzeari ikus-entzunezko integrazio didaktikorako, ikasgela teknikoen kudeaketaren hobekuntzarako eta orientaziorako.

- Informazioa babesteko sistemak.

- Ikasgelako jarduerak sarean kudeatzea.

- Informazio guneak bigarren hezkuntzako ikastetxeetan.

- Softwarea erosi eta gaurkotzea.

- Erabiltzen ari diren programen lizentziak erostea.

- Programen bertsio aurreratu bat, gutxienez, erostea, irakasleek erabiltzeko eta ikasleen eskura jartzeko (Aulanet sareko sistemaren edo antzeko baten bidez)

- Hainbat altzari eta instalazio egokitu eta eguneratzea.

Inbertsioak urtez urtekoak izanen dira, aurrekontuetan ezarritako diru kopuruaren arabera.

Lanbide heziketako prestakuntza eskaintza hobetzeko planifikazioari dagokionez, epe ertaineko ondoko jarduketak hauek aurreikusita daude:

- Heziketa zikloak eskaintzen jarraitzea eta malgutasunez jokatzea, ikasle kopuruari doakioenez.

- “Merkataritzako kudeaketa eta marketina” goi mailako zikloa eskaintzen jarraitzea, iaz nahikoa izen-ematerik jaso ez bazuen ere.

- Prestakuntza eskaintzaren handitzea aztertzea, Sakanako enpresa sektorearen beharren arabera, baldin eta nahikoa eskari badago ikasle-en aldetik.

- Ikastetxeko ekipamendua egokitu eta berri-tzen jarraitzea.

- Irakasle elebidunak kontratatzen jarraitzea.

Lanbide heziketari eta prestakuntzari buruzko Lege Organikoari jarraiki, Altsasuko Bigarren Hezkuntzako Institutuan lanbide heziketa hasierakoa, jarraia eta okupazionala ematea aurreikusita dago, epe ertainean, zerbitzu integrala eta eskualdeko enpresa sektorerara egokitua eskaintzearen.

Erregulazio lanbide heziketan ez dago hizkuntza eredurik. Izan ere, hizkuntza ereduak euskara ikasi eta hobetzea dute helburu “Hizkuntza” ikasgaia duten hezkuntza etapetan bakarrik.

Hala eta guztiz ere, Hezkuntza Departamentuak eskualdeko hizkuntza errealtatea kontuan hartzen jarraituko du eta irakasle elebidunekin beteko ditu hutsik dauden lanpostuak, irakasleek bai euskaraz bai gaztelaniaz egin ahal dezaten ikasleekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 16an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, 2004-2005 ikasturterako bekak emateko deialdia onesteko dekretua oraindik argitaratu gabe egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak 2004-2005 ikasturterako bekak emateko deialdia onesteko dekretua oraindik argitaratu gabe egoteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du beken deialdi orokorrari eta 2004-2005 ikasturterako deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Hezkuntza kontseilariaren abuztuaren 27ko 234/2004 Foru Aginduak (irailaren 10eko 109. NAO) maila ertain eta unibertsitarioetarako 2004/2005 ikasturteko beken deialdi orokorra onetsi du.

Ez da atzerapenik izan 2004-2005 ikasturteko aipatu beken deialdi orokorrean.

Nafarroako Gobernuak beken deialdi orokorra Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren osagarria da. Eskaerak aurkezteko epemuga urriaren 29a da bi deialdietan, eta, beraz, ez dago atzerapenik edo gorabeherarik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 16an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, ezgaitasunak dituzten zenbait haur bizi diren herriez beste batzuetan eskolatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak ezgaitasunak dituzten zenbait haur bizi diren herriez beste batzuetan eskolatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko uztailaren 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du ezgaitasunak dituzten zenbait haur bizi diren herriez beste batzuetan eskolatzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Hezkuntza Departamentuak garraio egokia jartzen du ezgaitasunak dituzten haurren eskura, hala eskatzen badute. Garraioak etxetik ikastetxeraino eramaten ditu, ikastetxea haurren bizitokia zein bizitokitik kanpo egon.

Hona hemen ezgaitasunak izan, euren herriez beste batzuetan ikasi eta haietaraino eramanak diren haurren datuak (kopuruak zein ikastetxeak):

1. HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEAK

Ikastetxe publikoak:

– Torre Monreal HBIP/Tutera: 25 ikasle ezgaitu, 5 autobusetan garraiatzen direnak (horietatik 4 egokituta daude)

– Andrés Muñoz Garde HBIP/Iruña: 45 ikasle ezgaitu, 3 autobus egokitan garraiatzen direnak. Taxi bat, bi haurrentzat, Altsasutik Andrés Muñoz ikastetxera.

Ikastetxe itunduak: garraioa Hezkuntza Departamentuko banakako laguntzen bidez egiten da.

– Isterria ikastetxea (Ibero, Nafarroako Kutxa). 2004-2005 ikasturtea: 28 ikasle ezgaitu

– El Molino ikastetxea (Iruña). 2003-2004 ikasturtea: 8 ikasle. 2004-2005 ikasturtea: irailean eskatuko dute.

2. HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEEKIKO GELA ALTERNATIBOAK IKASTETXE PUBLIKOETAN.

San Pedro IP (Mutiloabeiti): 3 ikasle taxiz

Hegoalde IP (Iruña): 3 ikasle taxiz

Alfonso X el Sabio IP (San Adrián): ikasle 1 taxiz

Remontival IP (Lizarra): ikasle 1, garraio laguntza banakakoa duena.

Marqués de la Real Defensa IP (Tafalla): 2 ikasle taxiz

3. HEZKUNTZA BEREZIKO GELAK (HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEETARA EGOKITZEKO GELA) IKASTETXE ITUNDUETAN

Santa Catalina Labouré ikastetxea (Iruña): 2 ikasle

4. CURRICULUM BERARIARAZKORAKO UNITATEAK EZGAITASUN PSIKIKOAK DITUZTEN IKASLEAK INSTITUTUETAN INTEGRATZEKO

Lekarotz BHI: ikasle 1, banakako laguntza duena

La Paz BHI (Cintruénigo): ikasle 1 taxiz

Benjamín de Tudela BHI (Tutera): ikasle 1 taxiz

5. CURRICULUM BERARIAZKORAKO UNITATEAK EZGAITASUN PSIKIKOAK DITUZTEN IKASLEAK IKASTETXE ITUNDUETAN INTEGRATZEKO

Amor de Dios-Regina Pacis ikastetxe itundua (Burlata): ikasle 1, banakako laguntza duena

6. MUGITZEKO EZGAITASUNAK DITUZTEN IKASLEAK ESKOLATUTAKO IKASTETXE ARRUNTAK

Monte San Julián IP (Tutera): ikasle 1 taxiz

Valle del Ebro BHI (Tutera): ikasle 1 taxiz

Arguedas IP: ikasle 1, garraio laguntza banakakoa duena

7. LEHENTASUNEZKO IKASTETXEAK:

a) Entzuteko arazoak dituztenentzako lehentasunezko ikastetxeak: banakako laguntzak eta taxi bidezko garraioa

– Víctor Pradera IP: 9 ikasle

– Plaza de la Cruz BHI: ikasle 1

b) Mugitzeko arazoak dituztenentzako lehentasunezko ikastetxeak: banakako laguntzak eta taxi bidezko garraioa

– Azpilagaña IP: 5 ikasle

– Hilarión Eslava IP: 0

– Basoko BHI: 5 ikasle

– Ibaialde BHI: 0

– Sanduzelai IP (Iruña): ikasle 1 taxiz

c) Entzuteko arazoak dituzten ikasleak garraioa behar duten beste ikastetxe batzuetan:

– Marcilla IP-Falces IP: ikasle 1 taxiz

8. HAUR ETA GAZTEEN PROGRAMA: Hezkuntzak eta Adimen Osasunak batera eramandako programa, garapen arazo larriak, autismoa eta haur psikosia duten 3 eta 7 urte bitarteko ikasleentzat. Ikasle horiek Iruñeko eta Iruñerriko ikastetxe arruntetan, bai publikoetan bai itunduetan, eskolatuta daude, eta, goizetan, hezkuntza eta terapia tratamendua jasotzen dute Txantreako Haur eta Gazteen Eguneko Zentroan. Taxiz joaten dira, zaintzaile batek lagunduta. Programak sei ikasle hartzen ditu, batez beste, ikasturte bakoitzean. Ikasle kopuru zehatza irailean zehazten da. Hezkuntza Departamentuak finantzatzen du garraioa.

9. BESTE AUTONOMIA ERKIDEGOREN BATEKO IKASTETXEETAN ESKOLATUTAKOAK: Bera, Igantzi eta Leitzako 3 ikasle Gipuzkoara joaten dira, eta garraio laguntza banakakoa dute.

10. Ezgaitasun psikikoak dituzten ikasleak, bigarren hezkuntzako institutuetan eta ikastetxe itunduetan kokatutako lanbide hastapen bereziko programak egiten dituztenak, joan-etorria garraioan egiteko autonomia dutenak.

Garraio bekak ematen zaizkie.

– 28 ikasle, ondokoetan eskolatuta daudenak: Sanitaria BHI, Agroforestal BHI, Tafallako BHI Politeknikoa, Ega BHI (San Adrián), Iruñeko Arte Eskola, Tuterako ETI BHI, Elizondoko BHI eta Ibaialde BHI (Burlata).

– 12 ikasle Iruñeko ondoko ikastetxe itunduetan: Hijas de Jesús, Santa Catalina Labouré eta Salestarrak.

11. Gurrpil-aulkietan ibiltzen diren bi ikasle daude bigarren hezkuntzako institutuetan, eskola garraio egokitua edo taxia behar dutenak: Castejóngo ikasle bat, Benjamín de Tudela BHIra joanen dena, eta Arradako beste bat, Marqués de Villena BHIra joanen dena.

Hezkuntza Departamentuak ondoko neurri hauek hartzen ditu ezgaitasunak dituzten ikasleentzako garraiorako:

1. Eskola garraio arrunta, hura erabili ahal duten guztientzat.

2. Banakako laguntzak, senideek garraia ditzaten (familia joan-etorrietan bezala) edo taxi egokitueta joan daitezten, ikasle bakoitzaren premia edo ezgaitasun mailaren arabera. Garraioa taxi egokitueta egiten bada, Administrazioak garraioaren gastu osoa ordaintzen du (Dirulaguntzen, laguntzen eta beken urteko deialdia, ekainaren 1eko 135/2004 Foru Aginduan).

3. Autobus egokitu bidezko garraioa heziketa bereziko ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasleentzat.

4. Eskola garraioko autobus egokitu bidezko garraioa huraxe behar duten hainbat ibilbidetan.

Hezkuntza Departamentuak ezin die exijitu garraio konpainiei euren ibilgailuetan berrikuntzak egiteko eta, horrela, ezgaitasunen bat duten ikasleak ikastetxeetara garraiatu ahal izateko, oztopo fisiko eta zentzumenezko buruzko araudia betez.

Irisgarritasuna errazteko jarduketak ezartzearen, hau da, irisgarritasuna ezgaitasunak dituzten lan-munduratzeara eta gizarteratzea ahalbidetuko duen oinarritzko tresna izatearren, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak deialdiak egiten ditu, Nafarroako ikastetxeetako ikasleak garraiatzen dituzten enpresei zuzendutakoak.

Aipatu deialdiek ahalbidetzen dute ibilgailu motordunak erosteko/egoikitzeke dirulaguntzak lortzea eta Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateekin lankidetzak hitzarmenak gauzatzea, eskualdeetan taxi egokituak ezartzeko programak sustatzea helburu dutenak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 16an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Mendillorriko bigarren hezkuntzako institutuak izanen lukeen ikasle kopuruaren aurreikuspenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Mendillorriko bigarren hezkuntzako institutuak izanen lukeen ikasle kopuruaren aurreikuspenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko uztailaren 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako Institutuak izanen lukeen ikasle kopuruaren aurreikus-

peni buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Lehen galderari, hau da, 2006/2007 ikasturterako balizko ikasleen aurreikuspenak aldatzeari buruz, Hezkuntza Departamentuak egindako azken txostenaren aurreikuspenak aldatzeko moduko baldintza edo egoera berririk sortu ez dela esan behar da.

Mendillorriko ikastetxe publikoetan lehen hezkuntzako seigarren maila amaitu eta, ziur asko, 2006/2007 ikasturtean derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen mailarako plaza eskatuko duten ikasleen kopuruaren aurreikuspena hauxe da: 91 ikasle, A eta G ereduetan, eta 61 ikasle, D eredu-an.

Hauexek dira Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako Institutu berria eraiki eta abian jartzeko beharrezko jarduketak zein bakoitzaren kronograma:

BEHARREZKO JARDUKETAK	KRONOGRAMA
Kontratazio espedienterako beharrezko lan teknikoaren hasiera	2004ko irailaren lehen astea
Proiektua erredaktatzeko lehiaketa onesteko foru agindua	2004ko urriaren lehen astea
NAOn argitaratzea	2004ko azaroaren lehen astea
Lizitatuzaileen eskaintzak aurkeztea	2004ko abenduaren bigarren astea
Proiektuaren adjudikazioa	2004ko abenduaren azken astea
Proiektua ematea	2005eko apirilaren lehen astea
Proiektua onestea	2005eko apirilaren hirugarren astea
Tramitazioa, gobernuaren erabaki proposamena (urte anitzeko obra izanik) eta gobernu erabakia onestea	2005eko maiatzaren laugarren astea
Obra lehiaketa onesteko foru agindua	2005eko ekainaren lehen astea
NAOn argitaratzea	2005eko ekainaren azken astea
Eskaintzak aurkeztea	2005eko abuztuaren bigarren astea
Obra adjudikatzeko foru agindua	2005eko irailaren bigarren astea
Kontratua formalizatzea	2005eko urriaren lehen astea
Zuinketa eta hasmenta akta	2004ko urriaren azken astea
Obra egitea	2005eko azaroa eta abendua (2 hilabete)
	2006. urtea (12 hilabete)
	2007ko urtarrila eta otsaila (2 hilabete)
Obra amaitu eta entregatzea	2007ko martxoa
Ekipamendua	2007ko martxoa-ekaina
Obra entregatzea eta ekipamendua	2007ko ekaina

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 16an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, euskara lantzeko kultur jarduerak egiteko laguntzen deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak euskara lantzeko kultur jarduerak egiteko laguntzen deialdian agiriak aurkezteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko uztailaren 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unidad de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du euskara garatzeko kultur jarduerak egiteko laguntzetarako deialdian eskatutako agiriari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

1.- Ekainaren 3ko 106/2004 Ebazpenak, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak emanak, Nafarroan euskara garatzeko kultur jarduerak egiteko laguntzetarako deialdia, 2004. urtekoa, onetsi zuen.

Ebazpenaren bidez, I. eranskinean agertutako oinarriak onetsi ziren.

Laugarren oinarriak ("Eskabideak") aurkeztu beharreko dokumentazioa zehazten du:

a) Nortasun juridikoari buruzko agiriak (agiriok Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak ez balitu edo agiriaren edukietan aldaketarik balitz):

– Pertsona fisikoa baldin bada, nortasun agiri nazionala.

– Elkartea bada, hura Nafarroako Foru Komunitateko Elkarteen Erregistroan inskribatu zenean Nafarroako Gobernuako Barne zuzendari nagusiak emandako ebazpena, eta elkartearen estatutuak.

– Gainerako kasuetan, eskatzailearen nortasun juridikoa eta legezko helbidea Nafarroan duela aski egiaztatzen duten agiriak.

b) Identifikazio fiskaleko txartela eta finantza entitatea eta bertako kontuaren zenbakia, laguntzarik emanez gero, dirua kontu horretan sartu ahal izateko.

c) Gizarte Segurantzza eta zerga betebeharretan, halakorik ordaindu beharra baldin badago, eguneratua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Diruz laguntzeko eskatzen den jarduerari buruzko agiriak:

– Laguntzaren xedea den proiektuari buruzko azalpen txostena, espreski aipatuz zer publiko motarendako den.

– Aurreikusitako gastuen aurrekontua, kontzeptuen arabera sailkatua eta haiek finantzatzeko baliabide eta dirusarrerak, halakorik bada.

– Deialdi honetan dokumentazioa eta eskabi-deak aurkezteko finkatzen den azken egunerako programatutako jarduera guztiak buruturik badaude, "Dirulaguntzen ordainketa eta justifikazioa" izeneko 10. oinarrian zehazten den dokumentazioa aurkez daiteke.

– Beste erakundek, publiko zein pribatu, emandako laguntzak espreski aipatuko dira. Eskaturiko eta ebazte aldian dauden laguntzak, edo eskatuko direnak, aldeko ebazpena izanez gero, berehala jakinarazi beharko zaizkio Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari.

2.- Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak haxe eskatu ohi die aipatu laguntzen deialdian interesa dutenei: "Nortasun juridikoari buruzko agiriak (agiriok Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak ez balitu edo agiriaren edukietan aldaketarik balitz)" zein "Gizarte Segurantzza eta zerga betebeharretan, halakorik ordaindu beharra baldin badago, eguneratua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria"; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren organismo autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeak agindutakoaren arabera. Aipatu foru legeak horiek kreditatzeko die onuradunei dirulaguntza ordaindu aurretik.

Legearen eskakizun horren aurrean, bi aukera balia daitezke dirulaguntzak emateko deialdi publikoak egiterakoan: onuradunek agiri horiek aurkeztea, edo prozeduraren instrukzioa egiten duen organo edo unitateak agiri horiek ofizioz egiaztatzea eta espedientean sartzea, dirulaguntza ordaindu aurretik.

Egia da Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan herritarren eskubide sorta zabala aitortzen dela, eta horien artean, herritarrek eskubidea dutela “ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen Administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere”. Eskubide horiek zuzenean aplikatzen badira ere, tarteko arauen beharrik gabe, horiek gauzatzeko tributua aitortzei eta horietan adierazten diren datuei buruzko beste arau batzuk ere interpretatu behar dira.

Alde batetik, kontuan hartu behar da Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra; izan ere, 9.1 h) artikuluan ezartzen denez, herritarrak “eskubidea du, legeek agintzen duten moduan, tributua administrazioak lortu dituen datuak, txostenak edo aurrekariak sekretuak izateko. Ez da zilegi izan horiek erabiltzea Administrazioak kudeatu behar dituen tributua edo baliabideak egitez aplikatzeko baizik, eta ezin izan zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, legeek aurreikusirikoa kasuetan salbu”.

Azaroaren 26ko 30/1992 legearen 35. artikuluan aitortutako eskubidearen mugak modu egokian ezartzeko kontuan hartu behar den bigarren araua da Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.

3.- Foru Komunitateko administrazioeko departamentuen arteko lankidetzaren printzipioaren ondorioz administrazioek datuak elkarri eskatzeko aukerak ez du inolaz ere baztertzen interesdunen baimena lortzeko beharra. Halaber, lortutako datuak modu egokian erabiltzeko, bermeak eta hainbat datu emateko beharra ezartzen dira arau horretan: datu pertsonalak, batzuetan (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, pertsona fisikoentzat, eta Identifikazio Fiskaleko Kodea, pertsona juridikoentzat edo pertsonalitate gabe entitateentzat), eta erresebatuak, besteetan, hala nola Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dituen datuak ikusi ahal izateko sarbide-gakoa.

Horren alde agertu zen estatuko legegilea azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarria eman zuenean (Neurri Fiskal, Administratibo eta Sozialei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legearen bidez sartu zuen). Hain zuzen, xedapen horrek ezartzen duenez, aurreko idatz-zatietan aipatzen diren eskaera eta jakinarazpenekin batera aurkeztu beharreko tributua ziurtagiriaren nahiz Gizarte Segurantzako ordez kasuan kasuko datuak emanen dizkiote entitate

eskudunek organo kudeatzaileari, baldin eta interesdunak berriazko baimena ematen badu.

Ildo beretik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23.3 artikulua ezartzen du “onuradunak eskaera aurkezteak berekin dakarrela organo kudeatzaileari baimena ematea Estatuko Tributua Administrazioaren Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko”.

4.- Dena den, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak dirulaguntzak emateko deialdi berrikusketa orokorra egingen du, eta deialdi horietan aipatutako aukera jasotzea aztertuko du, hau da, interesdunak eskaera aurkezteak berekin ekartzea baimena ematea Nafarroako Tributua Ogasunak ematen dituen ziurtagiriak eskatzeko.

Azterketatik ondorioztatzen bada formula horrek Nafarroako dirulaguntzei buruzko araudiaren lege babesa duela, hurrengo deialdietan sartuko da.

5.- Balizko eskatzaileen nortasun juridikoari buruzko agiriari doakenez, hau da 4.1 a) oinarriak: agiriak aurkeztuko dira “Unibertsitatearako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak ez balitu”.

Elkarteei deialdi honetara aurkezteko eskatzen zaien “auzotasun” baldintza bakarra da egoitza Nafarroan izatea, eta horien artean egon daitezke Nafarroan soilik dihardutenak, eta horrenbestez, Nafarroako Gobernuak elkarten erregistroan (Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren mende dago erregistroa) izena emanda daudenak, baita Nafarroakoa baina jarduketa eremu zabalagoa dutenak ere, nazio mailakoak edo nazioartekoak, eta halakoetan, inskripzioa estatuko administrazioaren menpe dago, Elkarteko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 25. artikulua eta aztergai dugun alderdia garatzen duen azaroaren 28ko 1497/2003 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraikiz.

Azaroaren 26ko 30/1992 legearen 35 f) artikuluan aitortutako eskubidearen aplikazio eremuak jardun duen administrazioa soilik ukitzen du, kasu honetan, Nafarroako Foru Komunitatea, eta ez beste administrazio batzuk. Hori dela eta, balizko interesdunek zer erregistroan izena emanda egon behar duten a priori jakin gabe, deialdian ez zen zehaztu eskubide hori baliatzeko aukera beren estatutuak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko erregistroan jasota dituzten elkar-teentzat.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 16an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Mendillorri bigarren hezkuntzako institutua non eraikiko den jakiteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Mendillorri bigarren hezkuntzako institutua non eraikiko den jakiteko buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko uztailaren 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 23

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako Institutuaren kokapenari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak Ondare Zerbitzuarekin eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuarekin egindako kontsulta eta gestioen ondorioz, 164. zenbakiko lurzatiaren kalifikazioa aldatzeko (irakaskuntzako erabilerarako) espedientea tramitatzen ari dela adierazi dezakegu. Hartara, Mendillorriko institutu berria eraikitzeke proiektuan sartuko da.

Aipatu tramiteak amaituta, lurzatia Mendillorriko institutu berria eraikitzeke proiektuari gehituko zaio.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 16an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, merkatarien elkarteak eta enpresen arteko lankidetzak sustatzeko eta informazioaren eta komunikazioen teknologia aplikatzeko programaren laguntzetarako deialdian agiriak aurkezteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak merkatarien elkarteak eta enpresen arteko lankidetzak sustatzeko eta informazioaren eta komunikazioen teknologia aplikatzeko programaren laguntzetarako deialdian agiriak aurkezteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko uztailaren 5eko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu jaunak galdera egin du Merkatarien elkarteak eta enpresen arteko lankidetzak sustatzeko eta informazioaren eta komunikazioen teknologia aplikatzeko programa osatzen duten dirulaguntzen deialdirako agiriak aurkezteari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua taldeak galdera egin dio Parlamentuko Mahaiari. Aipatu taldearen arabera, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren martxoaren 4ko 20/2004 Foru Aginduak, Merkatarien elkarteak eta enpresen arteko lankidetzak sustatzeko eta informazioaren eta komunikazioen teknologia aplikatzeko programa osatzen duten dirulaguntzen deialdia onesten duenak, urratu egiten du 30/1992 Legearen 35 f) artikulua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak jadanik duen dokumentazioa eskatzen baita 8.2 b) artikuluan.

Hori dela medio, eta afera aztertu ondoren, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak aipatu foru agindua aldatu eta, aurrerantzean, hurrengo deialdiak aztertuko ditu, 30/1992 Legeak adierazitakoaren arabera izan daitezkeen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 21ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, legeak ezarritako kasuetan haurdunaldia nahita eteteko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak legeak ezarritako kasuetan haurdunaldia nahita eteteko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 29

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak galdera egin du haurdunaldia nahita eteteari zein nerabeen haurdunaldiei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

1.- Nafarroako Gobernuak emakume nafarrek haurdunaldia nahita eteteko duten eskubidea bermatzen du, legeak ezarritako kasuetan.

2.- Azken urteotan haurdunaldiak nahita etete-ko beste erkidego batzuetara bidalitako emakumeen kopurua:

2000. urtean: 46 emakume

2001. urtean: 52 emakume

2002. urtean: 53 emakume

2003. urtean: 54 emakume

Zenbateko horiek ez datoz bat Osasun Ministerioak estatistiketan agertutakoekin. Ondokoak azaltzen du alde hori: batetik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez tramitatutako haurdunaldien borondatezko eteteak daude, eta, bestetik, Osasun Ministerioak Espainia osoko klinika publiko zein pribatuetatik hartutakoak daude (emakume nafarrak zentro publiko zein pribatuetatik joaten dira klinika horietara).

Zein erkidegotara?

Aragoi (Zaragoza): Actur klinika

Madril: Isadora klinika

Kostua?

Haurdunaldia nahita eteteak 847 euroko kostua du, batez beste.

3. Bideko Ama Birjina Ospitalean izandako ama nerabe-gazteen erditze kopuruak hauexek izan dira 2002., 2003. eta 2004. urteetan:

Adina	Erditze kp.
13 urte	1
14 urte	1
15 urte	5
16 urte	17
17 urte	38
18 urte	76

Kontua hartu behar da Bideko Ama Birjina Ospitalea erreferentziako zentroa dela arrisku handiko haurdunaldietarako, eta nerabeen haurdunaldiak arrisku handikotzat hartu dira.

2002., 2003. eta 2004. urteetako erditze kopurua 11.062 izan dela kontuan hartzen bada (2004ko uztailaren 31ra arte zenbatu dira), nerabeen haurdunaldi/erditze kopurua, aipatu denbora tarte horretan, guztizkoaren % 1,25 izan dela ateratzen da.

2003. urtean, 13 eta 19 urte bitarteko 52 emakumek eten zuten nahita haurdunaldia.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuan administrazio-kudeaketako teknika-riak aldi baterako kontratatzeke izangaien zerrenda egitekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko apirilaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena. Nafarroako Parlamentuan administrazio-kudeaketako teknikariak aldi baterako kontratatzeke izangaien zerrenda egiteko deialdia onestea. Ondotik ematen dira oinarriak.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2005eko apirilaren 20an.

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

Deialdia, Nafarroako Parlamentuan administrazio-kudeaketako teknika-riak aldi baterako kontratatzeke izangaien zerrenda egitekoa

Oinarriak

1. Xedea.

Deialdi honen xedea da hautapen proben bidez eratzea administrazio-kudeaketako teknika-riaren lanpostuan aritzeko izangaien zerrenda bat, Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharrei aldi baterako erantzuna emateko, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko aldi baterako langileak kontratatzeari buruz Erregelamenduan xedatuta-koarekin bat.

2. Parte-hartzaileek bete beharrekoak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean izangaiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Nazionalitatez espainiarra eta adinez nagusia izatea.

c) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean diplomatuaren, ingeniaria edo arkitekto teknikoaren tituluaren edo ofizialki horien balioki-

detzat jotzen direnen jabe izatea edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria edukitzea.

e) Kasuan kasuko eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoak betetzeko desgaiturik edo bazterturik ez egotea eta administrazio publikoren bateko zerbitzutik bereizia ez izana.

Baldintza guztiak agiri bidez egiaztatu beharko dituzte hautatzen diren eta aldi baterako kontratatzeke deia jasotzen duten izangaiek, adierazten zaien unean, kontratua formalizatu aurretik.

Aurreko baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete beharrekoak direla ulertuko da, bai eta hautatzeko prozeduran eta kontratatzeke unean ere.

3. Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko erregistro orokorrean, Iruñeko Navas de Tolosa kaleko 1ean, aurkeztu ahal dira, edo Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduan ere.

Eskabideak deialdi honetako I. eranskinetako ereduaren arabekoak izanen dira eta Nafarroako Parlamentuaren erregistro orokorrean, Navas de Tolosa kalea, 1, Iruña, eskuratu ahal izanen dira; bertan, izangaiek adierazi beharko dute ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan harturik.

3.2. Ezgaitasuna duten izangaiek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitza-penik behar badute, zilegi izanen dute eskabidean eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako ezgaitasuna duten eta zer egokitza-pen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera minusbaliatuak direla frogatzeko

agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

4. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hogeita egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

5. Behin-behineko zerrendak.

Eskabideak aurkezteko epea iraganik, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda jarriko du jendaurrean Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta www.parlamento-navarra.es web orrian.

Egun horretatik aurrera eta ondoko bost egun baliodunetan izangaiek erreklamazioak egin ahaliko dituzte edo eskabidean egindako akatsak zuzendu.

Izangai bazterturik ez badago, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

6. Behin betiko zerrendak.

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera jakitera emanen da hautapen probak egiteko eguna eta tokia; aurreikusirik dago 2005eko ekainaren lehenengo hamabostaldian egitea.

7. Epaimahai kalifikatzailea.

7.1. Hauexek izanen dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Epaimahaiburua: Jesús Javier Marcotegui Ros jauna, Nafarroako Parlamentuko lehen idazkaria.

Ordezkoa: Félix Taberna Monzón jauna, Nafarroako Parlamentuko bigarren idazkaria.

Epaimahaiko kidea: Francisco del Cerro Paúl jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako burua.

Ordezkoa: M^a Victoria Larrañeta Lizarrondo andrea, Nafarroako Parlamentuko teknikari diplomatua.

Epaimahaiko kidea: Fernando Zulet Recalde jauna, Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzaile-tza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Laura Vidán Astiz andrea, Nafarroako Parlamentuko administrazio-kudeaketako teknikaria.

Epaimahaiko kidea: Ander Irizar Apaolaza jauna, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatua.

Ordezkoa: Eduardo Aranaz Jiménez jauna, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatua.

Idazkaria: Nekane Iriarte Amigot andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria, epaimahaiko idazkari lanetan arituko dena.

Ordezko idazkaria: Silvia Domenech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

7.2. Abstentziorako eta errefusatzeko lege ezarritako arazoak aplikatuz, epaimahaiaren osaketan aldaketarik izanez gero, argitara emanen litzateke izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera.

7.3. Epaimahaia hautapen probak hasi aurretik eratu beharko da.

7.4. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo absolutua bildu gabe.

7.5. Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak.

7.6. Epaimahaiak aholkulari adituak erabili ahaliko ditu probarako. Aholkulari horiek dagozkien espezialitate teknikoetan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiari horietan baizik ez diote lagunduko.

8. Hautapen prozesuaren garapena eta balorazioa.

8.1. Hautapena proba hauek eginez gauzatuko da:

A) Proba teorikoa:

II. eranskinetako bi gai garatzea, zozketa bidez ateratako lautik aukeran.

Probak, gehienez ere 3 ordu iraunen du.

Gai bakoitzaren kalifikazioa 0tik 10 puntura bitartekoa izanen da, eta bazterturik geldituko dira gutxienez puntuazio erdia (5 puntu bakoitzean) lortzen ez duten izangaia.

Epaimahaiak jendaurrean jarriko ditu emaitzak Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta www.parlamento-navarra.es web orrian, bai eta gaitu duten izangaiek proba praktikoa noiz, non eta zer ordutan egin beharko duten ere.

B). Proba teoriko-praktikoa:

Idatziz garatzea epaimahaiak ondoko gaietaz buruz planteaturiko kasu teoriko-praktiko batzuk:

Kontabilitate publikoa, kontratazio publikoa eta administrazio prozedura.

Proba hau egiteko, izangaiek lege testuak kontsultatu ahaliko dituzte (Kontabilitate Publikoaren Arauak, Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko Foru Legea eta Prozedura Legea).

Epaimahaiak ezarriko du proba hasi baino lehen zenbat iraunen duen.

Hautapen probaren kalifikazioa Oñik 20 puntura bitartekoa izanen da, eta bazterturik geldituko dira gutxienez puntuazio osoaren erdia (10 puntu) lortzen ez duten izangaia.

8.2. Hautapen probak egiteko, ahal diren denbora eta baliabide egokitzapenak jarriko dira hala eskatzen duten minusbaliatuentzat, eskabidean azaldutakoaren arabera.

9. Gaingitu dutenen zerrenda eta deialdia.

9.1. Gaingitu duten izangaiei zerrenda Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean emanen da argitara, lortutako puntuazio osoaren hurrenkeran.

9.2. Gaingitu duten izangaiei deitu ahaliko zaie Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharren arabera, deialdian ezarritako oinarriekin eta aplikatzekoak diren gainerako arauekin bat, eta aldi baterako administrazio kontratua eginen zaie, B mailako administrazio-kudeaketako teknikari izateko; lanpostu horri dagozkion lansariak izanen dituzte, plantillako langile finkoek atxikiak dituztenak kenduta.

9.3. Izangaiei deitzeko kontuan hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarrian, 3. idatz-zatian, ezarritakoa, Foru Komunitatean ezgaitasuna duten pertsonen enplegua lortzeari buruzko maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legeak emandako testuan.

9.4. Kontratatuak alta emanen zaie Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean eta bertan afiliatuko dira, beraz haiek ordaindu beharko dute kasuan kasuko kuota eta PFEZaren atxikipenaren zenbatekoa.

9.5. Aldi baterako kontrataziorako izangaiei zerrendak sei urteko indarraldia izanen du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko aldi baterako langileak kontratatzeari buruzko Erregelamendua-rekin bat.

10. Errekurtsoak.

10.1. Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia

jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

10.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko gauzatzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahaliko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

I. ERANSKINA Eskabide eredia

Izen-deiturak: nazionalitatez espainiarra,

NA zenbakia:

19....(e)koaren(e)an (adinez nagusia),n jaioa

Helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea):

Telefono zenbakia: finkoa:, sakelakoa.....

Posta elektronikoko helbidea

AZALTZEN DUT:

Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharren arabera, administrazio-kudeaketako teknikariak aldi baterako kontratatzeke izangaiei zerrenda bat hautapen proben bidez egiteko deialdia onetsi eta 2005ekoaren(e)ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditudala, alegia:

a) Nazionalitatez espainiarra eta adinez nagusia izatea.

c) Diplomatuaren, ingeniariaren edo arkitekto teknikoaren tituluaren edo ofizialki horien baliokidetzat jotzen direnen jabe izatea edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eskuratzeko moduan egotea.

e) Kasuan kasuko eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoak betetzeko desgaiturik edo bazterturik ez egotea eta administrazio publikoren bateko zerbitzutik bereizita ez izana.

e) Minusbaliotasuna dudala, eta beraz eskabi-deari eransten zaion egokitzapena eskatzen dueda adierazten diren arrazoiengatik. (Beste orri batean zehaztuko dira minusbaliotasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak).

ESKATZEN DUT:

Onartua izatea deialdi horretan, kasuan kasuko hautapen proban parte hartzeko.

Iruñean, 200..(e)koaren ...(e)an.

Sinatuta:

II. ERANSKINA

Gaiak:

1. gaia. Administrazio publikoen araubide juridikoaren printzipio orokorrak. Administrazio publikoen organoak.

2. gaia. Administrazio prozedurako interesdu-nak. Jarduera administrazio publikoetan. Arau orokorrak, moduak eta epeak.

3. gaia. Administrazio xedapenak eta egintzak. Administrazio egintzen betebeharrak. Egintzen eraginkortasuna. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna.

4. gaia. Administrazio prozeduretako xedapen orokorrak: prozedura hastea, antolatzea, instruitzea eta amaitzea. Betetzea.

5. gaia. Egintzak administrazio-bidean berraztertzea. Ofizios berraztertzea eta administrazio errekurtsioak.

6. gaia. Zehatzeko ahalmena. Administrazio publikoen, haren agintarien eta haren zerbitzuko gainerako langileen erantzukizuna.

7. gaia. Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko Foru Legea: Aplikazio eremua eta araubide juridikoa. Xedapen erkideak. Administrazio kontratu ohikoenak. Nafarroako Parlamentuan duen aplikazioari dagokiona bereziki.

8. gaia. Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko Foru Legea: Administrazioarekin kontratuak egiteko baldintzak. Esleipenaren aurretiko jarduketak: Nafarroako Parlamentuari dagokiona bereziki.

9. gaia. Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko Foru Legea: Esleipena eta formalizazioa

10. gaia. Nafarroako administrazio publikoen kontratuak: kontratuen exekuzioa, aldaketa eta etetea. Iraungitzea.

11. gaia. Nafarroako Parlamentuaren langileen estatutua. Nafarroako Parlamentuko langileak. Sartzea eta kargu uztea. Egoera administratiboak.

12. gaia. Nafarroako Parlamentuaren langileen estatutua. Lanpostuak betetzea. Funtzionarioen eskubideak, betekizunak eta bateraezintasunak. Diziiplina araubidea.

13. gaia. Nafarroako Parlamentuaren antolaketarako erregelamendua. Parlamentuko administrazioa.

14. gaia. Nafarroako Parlamentuaren antolaketarako erregelamendua. Zerbitzu orokorrak.

15. gaia. Nafarroako Parlamentuaren antolaketarako erregelamendua. Aurrekontua: prestatu eta onestea. Aurrekontuko aldaketak.

16. gaia. Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko eta finantzarioa. Aurrekontua betetzea. Kontuen likidazioa eta onespina.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	42,35 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,10 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,27 »